


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HEZKUNTZA EMOZIONALA HAUR HEZKUNTZAN GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Etxeberria Mendiguren, Leire.

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara.

2017

LABURPENA:

Hezkuntza Emozionala azkenaldian indar hartzen doan kontzeptua da, baina oraindik ere asko dira gaiaren inguruko zalantzak. Teoria asko izan bai baina praktikan honen isla ez dela egi bilakatzen hipotesitik abiatuta ikerketa teoriko/ praktiko bat burutuko da izaera ezberdineko ikastetxeetako irakasleekin.

Gratu Amaierako Lan hau Haur Hezkuntza etapan zentratzen da eta adin tarte honetako haurren garapena eta adin tarte honetako haurren hezkuntza beharizanetan zentratzen da, egungo hezkuntza sistemak zer nolako erantzuna eskaintzen dien aztertzeke.

Lana hiru ataletan banatu liteke: lehenengoan, egungo marko teorikoa aztertzen jardungo dugu; bigarreanean, Goierriko hiru ikastetxe ezberdinetan Hezkuntza Emozionala nola lantzen den aztertuko da eta azken zatian, bi atal hauetatik eratorritako ondorioak eta aurrera begirako iker ildoak aztertuko dira.

AURKIBIDEA:

SARRERA:	1
JUSTIFIKAZIOA:	2
MARKO TEORIKOA	3
SARRERA ETA OINARRIZKO HIZTEGIA	3
1. HEZKUNTZA EMOZIONALA	4
2. ADIMEN EMOZIONALA	4
3. KONPETENTZIA EMOZIONALAK	5
ADIMEN EMOZIONALA 2-6 URTE BITARTE	7
HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA CURRICULUMA	9
<i>ADIMEN EMOZIONALA: EGUNGO EGOERA HEZKUNTZAN</i>	9
<i>ADIMEN EMOZIONALA: ZER, NOLA LANDU?</i>	10
<i>CURRICULUMA</i>	14
METODOA:	17
LAGINA:	17
INSTRUMENTUA:	17
PROZEDURA:	18
EMAITZAK:	19
ONDORIOAK	27
HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:	32
BIBLIOGRAFIA:	34
ERANSKINAK	36
1. ERANSKINA: ELKARRIZKETA	1
2. ERANSKINA: 1. IRAKASLEA (TRANSKRIBAPENA)	2
3. ERANSKINA: 2. IRAKASLEA (TRANSKRIBAPENA)	6
4. ERANSKINA: 3. IRAKASLEA (TRANSKRIBAPENA)	9

SARRERA:

Egungo hezkuntza legedia irakurriz gero ikasleei hainbat gaitasunen garapena eskatzen zaiela ikusiko dugu: ikasten ikasteko gaitasuna, elkarbizitzarako gaitasuna, komunikaziorako gaitasuna... Baina komunikabideei erreparatzea besterik ez da hurrei eskatzen dizkiegun gaitasun horiek gure gizartean presentzia gutxi dutela ohartzeko.

Hezkuntza aldaketaren motor gisa ulertzen bada, akatsetatik ikasi eta arazoei modu alternatibo eta eraginkorrean erantzuteko gaitasunak eskuratzea beharrezko izango dute ikasleek. Hau burutze aldera, egungo marko legalak, hainbat gaitasun garatzearen garrantzia azpimarratzen du lehen esan moduan.

Hau lantzerako unean, ordea, zer nola egin behar genuke?. Adituek aldarrikatu moduan orain arteko hezkuntza kontzeptuala ez da aldaketarako prest dauden indibiduoak hezteko gai izan. Akademikoki bikaintasuna ezagutu izan duten subjektu askok, porrota pairatu dute egunerokotasunean, baina zergatik?.

Hainbat autoreren esanetan, adimen mota anitz daude gure barnean eta guztiak garatzea beharrezkoa da, gure bizitzan zehar eremu ezberdinetan arrakasta izateko. Gauzak honela, ondorengo lanean adimen emozionala, nola lantzen den aztertu nahi da, adimen akademikoaz harantzago, ondorengo, hipotesiaren arabera: *Hezkuntza Emozionalaren inguruan teoria asko landu izan bada ere, teoria hauek praktikan ez dira asko islatzen da.*

Ondorengo proiektuak bi atal nagusi izango ditu. Lehena, Marko Teoriko izenarekin identifikatzen da, bertan Adimen Emozionala eta Hezkuntza Emozionala teorikoki aztertzen dira, ondoren, egungo Hezkuntza Marko Legalaz aztertzeraz igarotzeko, Hezkuntza Emozionalaren ikuspegitik eta egungo hezkuntza sisteman martxan diren proiektu ezberdinak ere aztertzen dira, zer nola hezurramitzen den hezkuntza emozionala proiektu ezberdinetan ikusteko. Atal hau amaituta, gradu amaierako lan honen oinarri teorikoa finkatutzat joko da, alderdi enpirikoari leku egiteko.

Bigarren atalean, egungo HEren egoera aztertzea helburu duen ikerketa bat garatuko da. Izaera ezberdinetako ikastetxeetan hezkuntza emozionalak duen leku eta presentzia aztertuko da hemen, dituzten ikuspegi, ezagutza, metodo, sinesmen eta material ezberdinak aztertzeko. Azkenik, bi atalen inguruko informaziotik eratorritako ondorioak aurkeztuko dira, egungo HEren markoa hobeto ulertze aldera, bai eta iker lerro berrien inguruko hausnarketa bat burutu ere.

JUSTIFIKAZIOA:

Hemen aurkezten den ikerketaren gaia, azken urteetan garrantzia hartuz joan den paradigma baten inguruan eraikia da; *adimen emozionalaren existentzia; adimen arrazionalarenaz gain*. Honen, adierazgarri Prats-en hitzak: "La sociedad del siglo XXI,(...) necesitará personas que se relacionen adecuadamente con los demás, que sepan controlar sus emociones, que sepan escuchar, que sepan auto motivarse, que transmitan entusiasmo, etc. (...) En definitiva, que tengan inteligencia emocional." (Prats, 2000:45).

Irakasle eta gizarte honen kide aktibo moduan, ardura sortarazten didan gaia da egungo gizartearen krisi morala: *errefuxiatuak, pobrezia (emozionala zein ekonomikoa), aukera berdintasuna, ekologia, klase sozialak...* askorentzat ideal bat izan den Europa honi, gabezia barkaezinak ikusten dizkiot nik.

Hezitzaile moduan, nire ardura dela iruditzen zait egoera honen inguruan zerbait egitea, eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dut, egungo errealitatearen kontzientzia hartzen laguntzea nire ikasleei. Honetarako ikastetxeek ekintza solidario ezberdinak burutu ohi dituzte: ekonomia jasangarriaren inguruko azokak, biodibertsitatearen aldeko ekintzak, inklusioaren aldeko jarduerak...

Kontzientziazioa beharrezkoa da, baina, honez gain gizartea eraldatzeko tresnak eskaini behar dizkiegu haurrei, eromenaren erdian, beraien buruan konfiantza izan eta beraien usteen arabera jokatzeko gai izan behar dira, kritikotasunez errealitatea epaitu eta moralitatearen barruan jokatzeko. Honetarako eduki akademikoak ez dira nahiko, eta honexegatik iruditzen zait hezkuntza emozionala horren interesgarria: ikasleei etorkizunari perspektiba berri batetik aurre egiten lagunduko diela iruditzen zaidalako.

Paradigma berria izaki, adimen emozionala hezkuntza eremuan zer nola integratu eta aurrera eramaten den ikertu nahi da. Azken urteetan garrantzia hartu duen aspektua den heinean; beronen integrazioa hezkuntza sisteman nola ematen ari den jakitea, etorkizunari begirako esku-hartzeetan oso interesgarria izan litekeelakoan bainaiz.

MARKO TEORIKOA

SARRERA ETA OINARRIZKO HIZTEGIA

Atal honetan, hezkuntza emozionalaren gainean jardungo gara, bere gain hartzen dituen termino eta kontzeptu ezberdinak azalduz, bai eta, kontzeptu hauek haurrengan eta hezkuntza sisteman nola ematen diren behatuz ere.

Honi ekin aurretik, ordea, interesgarria da, nahasketarik izan ez dadin, terminologia apur bat zehaztea: *hezkuntza emozional*, *adimen emozional* eta *konpetentzia emozional* moduan zer ulertzen den azalduz, ondorengo ataletan hauetariko bakoitza sakonduko baita, eta hauetatik abiatuz egungo haurren eta hezkuntza sistemaren markoa eraikiko baita emozioei dagokienean.

Bisquerra-k (2016), bere web orrian, hiru kontzeptu hauen arteko ezberdintasunak lantzen ditu. Honen arabera, **hezkuntza emozionala**, prozesu hezitzaile jarraitua da, garapen emozionalari dagokionean. Garapen emozional hau, garapen kognitiboarekin batera, pertsonaren garapen integralerako bide izango da.

Hezkuntza emozionalaren bidez gertatzen den garapen emozionalak, pertsonen **adimen emozionalean** eragingo du, adimen emozionala baita emozioak atzemateko, baloratzeko eta espresatzeko gaitasuna, sentimenduak sortzeko gaitasuna pentsamenduekin lotuta, emozioak ulertzeko eta ezagutzeko gaitasuna, bai eta emozioak erregulatzeko gaitasuna ere. Gaitasun hauek Hezkuntza Emozionalaren bidez landuz, adimen emozionala garatuko da eta honen albotik konpetentzia emozionaletan trebatuko gara, adimen emozionalaren gaitasunek ahalbidetuta bestelako egoerei aurre egiteko.

Konpetentzia emozionalak dira, emozioen inguruko gure ezagutzak (kontzeptualak), gaitasunak (egiten jakin) eta jarrerak eta portaerak (egon edo izaten jakitea) uztarturik ekintza, arazo, egoera ezberdinak modu eraginkorrean ebazteko gaitasunak.

Hiru terminoek elkarlotura zuzena badute ere, bistan da ezberdintasun nabariak ere badituztela. Ondorengo lerroetan termino bakoitzean sakonduko dugu:

1. HEZKUNTZA EMOZIONALA

“Proceso educativo, continuo y permanente, que pretende potenciar el desarrollo emocional como complemento indispensable del desarrollo cognitivo, constituyendo ambos los elementos esenciales del desarrollo de la personalidad integral. Para ello, se propone el desarrollo de conocimientos y habilidades sobre emociones con objeto de capacitar al individuo para afrontar mejor los retos que se plantean en la vida cotidiana. Todo ello tiene como finalidad aumentar el bienestar personal y social.” (Bisquerra, 2010: 5)

Bisquerrak eskaintzen digun aurreko definiziotik abiatuta, garrantzitsua da azpimarratzea hezkuntza emozionala (HE) prozesu bat dela, hau da, ez da hezkuntza formalean momentu zehatz batean ematen den esku-hartzea, programatua egon behar den eta bestelako hezkuntza motekin batera (hezkuntza kognitiboa, ikasgaiak, hain zuzen) doan prozesua baizik. Izan ere, ezin dugu ahaztu, aurretik aipatu dugun bezala, pertsonok bizitzarako, ongizate pertsonal eta sozialerako, adimen kognitiboa ez ezik adimen emozionala (AE) ere oso beharrezko dugula. Azkenik, aintzat hartu behar dugu, Bisquerra-k (2010) aipatzen duen bezala, erronkei aurre egiteko konpetentziak ematen dizkigula HEak.

2. ADIMEN EMOZIONALA

Ez da lan erraza adimen emozionala zer den definitzea. Literaturak definizio eta azalpen ugari eskaini ditu honen inguruan. Mayer eta Salovey (1997) jo izan dira AEren sortzailatzat (Fernández-Berrocal eta Ruiz-ek, 2008 jaso) eurak izan ziren, adimen emozionala, adimen arruntetik bereizita lantzen lehenak, gaitasun gisara agertu zituzten adimen honi egotziriko ezaugarriak. Hala ere, geroago Goleman-ek (1995) ezagutarazi zuen AEa bere, “Gaitasun Emozionala” liburuarekin.

Goleman-en (1995) modelo teorikoari jarraiki, AEa adimen mota bat da eta honi esker emozioak arazoei aurre egiteko unean beharren arabera egokitzea posible da. Autore honek lau oinarritzko gaitasun egotzen dizkio adimen mota honi (ikus 1. irudia), lehen hirurak emozioen inguruan arrazoitzeko eta azkena emozio bidez pentsamendua errazteko: lehenak, *emozioak hautemateko, baloratzeko eta kanporatzeko gaitasuna*; bigarrena, *emozioak ulertu eta egoera emozionala*

ezagutzeko gaitasuna; hirugarrena, emozioak erregulatzeko gaitasuna; eta azkenik, pentsamendua errazteko emozioak aurkitzeko edo sortzeko gaitasuna.



Irudia 1: Adimen Emozionalaren gaitasunak. Iturria: donostiaeuskaraz.eus

Autore askok landu dute adimen emozionala azken hamarkadetan eta egun, gizakiaren garapen integrala bermatzeko beharrezko aldagaitzat ikusten da kontzeptu hau. Honen adibide da Fernández- Berrocal eta Extremera-k (2002) euren artikulu batean inteligentzia emozionala garatzeak duen garrantziari eginiko aipamena, kontziente intelektual altuak, ez duela arrakasta eta zorientasuna bermatzen argudiatuz. Honen ildotik, Golemanek (1995) dio gure arrakastaren %20an soilik eragiten duela kontziente intelektualak, gainontzeko %80a adimen emozionalaren menpe dela, honen barnean: auto-motibazioa, jarraikortasuna, bulkaden kontrola, humore erregulazioa, enpatia... bezalako gaitasunak daude.

Adimen kognitiboarekin alderatuz, aurki genezakeen bestelako ezberdintasun garrantzitsu bat, betiereko garapena da. Prats-en (2000) esanetan, adimen arrazionala 12 urtetik aurrera gutxi gora behera, bere horretan mantentzen da, aldiz, adimen emozionala garatzen jarrai genezake.

3. KOMPETENTZIA EMOZIONALAK

Sarreran kompetentzia emozionalak definitu badira ere, goazen orain kompetentzia hauen azterketa sakonago bat burutzera:

Aierdi, Lopetegi eta Goikoetxea-k (2008), Goleman-ek (2000) eginiko kompetentzia emozionalen sailkapenari jarraitzen diote. Honek, bi eremutan banatu ditu **Kompetentzia Emozionalak**. Batetik, **pertsona-barruko kompetentziak** ditugu (kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala eta autonomia emozionala) eta, bestetik, **pertsonarteko kompetentziak** ditugu (trebetasun sozio-emozionala eta bizitzeko eta ongizaterako trebetasunak).

Kompetentzia emozionalen eredu hau, autore ezberdinek landu izan dute; ondorengo irudian Bisquerra-k (2016) aurkezten duen proposamen bat ageri da, Goleman-en teoriari jarraiki, kompetentzia bakoitzaren barruan mikro-kompetentzia batzuk aurkezten dira:



Irudia 2: Kompetentzia Emozionalak Bisquerra (2016)

Orain artean marko teorikoa kontzeptu ezberdinen gainean eraiki dugu; orain, kontzeptu hauek errealitatean nola uztartzen diren erreparatuko dugu.

ADIMEN EMOZIONALA 2-6 URTE BITARTE

Adimen emozionalaren garapena ebolutiboa da, norbanako bakoitza ezberdina bada ere, nolabaiteko prozesu ebolutibo bat jarraitzen dugula gizakiok esan daiteke. Honela autore ezberdinek adin tarte ezberdinetan haurrek ageri dituzten ezaugarri emozionalak jaso dituzte.

Esku artean dugun Gradu Amaierako Lanak, HH etapako Hezkuntza Emozionalari erreferentzia egiten dionez, adin tarte honetako (2-6 urte) haurren ezaugarri emozionalak aipatuko ditugu jarraian.

Haurrak eskolaratzen direnetik emozio ezberdinak ezagutzen eta esperimentatzen dituztela argi izan behar dugu. Jaio eta lehen hilabeteetatik sentitzen ditugu poza, haserrea, harridura, antsietatea, beldurra eta tristura moduko oinarrizko emozioak (Harris, 1989; Palacios et al.-ek, 1999 jaso). Eskolaratzeko lehen urteetatik aurrera, haurrak emozio konplexuagoak sentitzeko gai izango dira, eta emozio hauei esker autokontzientzia lortuz joango da haurra (Palacios et al., 1999). Emozio hauek izango dira: lotsa, harrotasuna eta kulpa. Hauek sentitzeko beharrezko da arauen eta balore sozialen ezagutza, norberaren jarreraren ebaluazioa arau hauekiko eta arrakasta edo porrotaren atribuzioa nor bere buruarekin egitea (Palacios et al., 1999). Beraz, bistan da, AEaren eboluzio maila aurreratua beharko dela emozio hauek sentitzerako garaian, oinarrizko emozioekin alderatuz gero.

Aipatu den moduan AEa dimentsio aniztuna da. Beraz, ezin azal liteke AEaren garapena bere osotasunean, barne elementuei modu indibidualizatuago batean erreparatu gabe. Ondorengo paragrafoetan kompetentzia emozionalen inguruko irudian (ikus 2. irudia) aurkezturiko mikro-kompetentzia batzuen garapena aurkeztuko da, HH etapan eboluzioa oso modu behagarrian adierazten duten mikro-kompetentzia batzuen hain zuzen ere.

Auto-efikazia: Autonomia emozionalaren mikro-kompetentzietako bat da. Niaren kontzientziarekin estimulatuta lorpenaren gainean eginiko atribuzioa dela esan genezake hau. Lehen urteetan, oinarrizko emozioak (poza eta tristura) arrakasta edo porrotarekin lotuta egongo dira (Berk, 1999; Abarka-k, 2003 jaso), hiru urte ingururekin, ordea, arrakasta eta porrota faktoreei, exekuzioaren

zailtasun maila gehituko zaie eta ondorioz sentitzen diren emozioak konplexuagoak izango dira: harrotasuna, lan zailaren arrakastaren aurrean edo lotsa, lan errazean porrota bizi izanez gero (Lewis, Alessandri y Sullivan, 1992; Abarka-k, 2003 jaso).

Enpatia: Gaitasun sozialen eta kontzientzia emozionalaren mikro-kompetentzia da. Bi hilabete dituenetik, haurrak ezberdin erantzuten omen dio helduaren pozari edo tristurari (Haviland y Lelwica, 1987; Palacios et al.-ek, 1999 jaso), eskola garaian bi hiru urte inguruan, hizkuntza eta joko sinbolikoarekin batera emozioen ulermenaren gaineko aurrerakada handia emango da (Palacios et al., 1999), honen adibide da Ortizek (2001) aipaturiko kasua (Abarka-k, 2003 jaso), non hiru urte ingururekin haurrak kalteak konpontzen saiatzen hasten diren.

Emozioen erregulazioa: Erregulazio emozionalaren mikro-kompetentzia. Emozioen erregulazioa testuinguruaren eraginpean egongo da duda gabe, haurrek jaiotzatik erregulazio teknika batzuk berezkoak badituzte ere: begiak ixtea, zurrupatzea, gorputza igurztea... (Palacios. et al., 1999), hauek ez dira nahiko izango urteak aurrera joan hala, eta kasu hauetan gurasoek edo helduek adieraziriko erregulazio estrategiak berebiziko garrantzia izango dute, haurrek emozioak erregulatzen ikasterako garaian.

Auto-irudia: Kompetentzia emozionala ez bada ere, haurrek dituzten kompetentzietan zuzenean eragiten du, beraien inguruan eraikiriko irudiak euren jardunean eragingo baitu: autoestimuan, helburu moldagarriak finkatzean, oinarrizko gaitasun sozialak menderatzean... Auto-irudia nork bere buruaren gainean duen kontzeptua da, denboran zehar garatuko dena eta etengabeko aldaketak jasango dituena, norbanakoak bere buruari buruz duen irudia aldatuz doan heinean, edo bere burua deskribatzeko duen hiztegi eta gaitasuna zabalduz doan heinean. Honela, 3-4 urte ingururekin deskribapenak orokorrean, oso zehatzak eta absolutuak dira (ona, txarra...), behagarriak diren ezaugarrietan oinarrituta (altua, begi urdinduna...), une jakin batean gertatua maximizatuz sortuak (gaiztoa, behin amari ez niolako kasurik egin...) eta koherentzia gutxikoak izan ohi direla dioskute Palacios et al.-ek (1999). Komunikazio gaitasuna eta gaitasun kognitiboa garatu ahala haurren auto-irudia ere garatuz joango da.

Autoestimua: Autonomia emozionalaren mikro-kompetentzietako bat da. Auto-irudiaren ebaluazio emozionala da. Izaera multidimentsionala du, aspektu

batzuetan autoestimua ona eduki liteke eta beste batzuetan kaxkarragoa. Harter eta Pike-k (1984) esandakoaren arabera (Palacios et al.-ek, 1999 jaso) 4-7 urte bitarteko haurren autoestimua gutxienez lau dimentsio ezberdin izango ditu: gaitasun fisikoa, gaitasun kognitibo- akademikoa, berdinkideen onarpena eta gurasoen onarpena. Auto estimua aldaketa handiak jasan ditzake haur batetik bestera, baita, dimentsio batetik bestera ere. Orokorrean, 2-6 adin tarteko haurren autoestimua, izaera positibo eta idealizatua duela diote Palacios et al.-ek, (1999).

HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA CURRICULUMA

ADIMEN EMOZIONALA: EGUNGO EGOERA HEZKUNTZAN

Prats-en (2000) arabera, egungo hezkuntza akademikoarekin, zeinak emozio eta sentimenduak baztertuta dituen, auto estimua baxua sustatzeaz gain, ondorengoak ere indartzen ditugu:

- Gure balore pertsonala gure ekintzen arabera dela sinestea.
- Gure emozioak epaitzea.
- Gure emozioen gaineko nagusitasun eza sentitzea.
- Sentimendu negatiboak zentsuratu eta erreprimitzea.

Fernández- Berrocal et al.-en (2008) esanetan, adimen emozional kaxkarrak lau alor nagusitan ekar ditzake gabeziak hezkuntza eremuan: besteekiko erlazioetan, ongizate psikologikoan, emaitza akademikoetan eta jarrera antisozialetan.

Adimen emozionalari dagokionean, ez dirudi hezkuntza bere zereginean asmatzen duenik. Ikerketek erakutsi dute, egun ikasleek duten adimen emozionalaren noranzkoa ez dela osasuntsuena, adibidez, Gaeta et al.-ek (2012) euren bigarren hezkuntzako ikerketari esker ondorioztatu zuten ikasleek lanarekiko duten konpromisoa ez dagoela euren gaitasunak erakustera bideratua, euren gaitasun- ezak disimulatzea baizik; helburuetara zuzenduriko ikaskuntza gisara ulertzen dutelarik euren ikaste-prozesua eta ez ikaskuntzara bertara zuzenduriko prozesutzat. Ikerketa berberak dio uneko emaitzak eskuratzeko estrategiak (buruz ikastea kasu) sustatzen dituela egungo hezkuntzak, aldiz, lanari ekiteko eta jarduteko estrategiak baztertu egiten dira, helburuak azkar bete nahian; honela, curriculumean oinarritzat jotzen den ikasten-ikastea kompetentziarako estrategiak baztertuta geratzen dira.

Aldaketak hain azkar ematen diren gizarte honetan; garapena etengabea den honetan; etorkizunerako ahalik eta formazio gehien izan behar dugun gizarte honetan; haurrak (etorkizuneko helduak) super- estimulatuta ditugu. Eduki zaparradak jasaten dituzte egunero. Atzerriko hizkuntzak, kirolak, solfeoa... barneratu behar dituzte, unean unekoa benetan asimilatzeko denborarik gabe. Ondorengo aipuak argi irudikatzen du egoera hau:

“Haur gehiago dago lau urterekin eguzki sistemak nola funtzionatzen duen esplikatzeko gai dena, baina biberoiko esnearekin gosaltzen duena inolako esfortzurik egin beharrik izan ez dezan eta denborarik gal ez dezan (...) Gauza batzuetarako *Superman* bezalakoak sentitzen dira, eta beste gauza batzuetarako- eurentzat oinarrizkoak eta garrantzitsuak direnak- oso mendekoak.” Palou (2016:23)

ADIMEN EMOZIONALA: ZER, NOLA LANDU?

Ez da erraza hau nola burutu asmatzen, ez eta material egokirik aurkitzen ere. Programazioren bat sortua da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Adimen emozionala” izeneko programazioak (Etxeberria, 2008), Zarauzko Berritzegunetik eginiko proposamena (Berritzegunea G05, DG)... Proiektu aitzindari ezberdinak ere jarri dira martxan: Hirukide ikastetxeak “norbere lanaren behaketarako” grabazioen erabilera uztartu du bere egunerokotasunean (Antxustegi, 2016), Grange eskolan (Erresuma Batuan) goitik behera aldatu zuten eskola “Creating Tomorrow’s schools today”-n azaldu moduan (Gerver, 2015), Konfiantzaren pedagogia (Konfiantzaren pedagogia, 2015), Gorputzaldiak, gorputzaren mugimenduak entzun eta sentituz gaitasun sozio- afektiboak lantzea (Remiro eta Navascues, 2016)...

HE-arekin lanean diharduten eskola eta profesionalak asko dira, ezin esan, ordea, hezkuntzak bere orokortasunean emozioen lanketa bere gain hartu duenik. Oraindik ere ikastetxeen gehiengoa noraezean da (adimen emozionalaren gaineko ikerketen emaitzek erakutsi moduan), ondorengo lerroetan aditu eta proiektu ezberdinen esperientziatik, jarraitu beharreko pautak jasoko ditugu, HE-a lantzeko praktika onen bila:

Ez dago batere argi AEaren lanketa nola burutu behar litzatekeen. Egokiena, teoria konstruktibistek aldarrikatu moduan, gaitasun emozionalak praktikan jarritz eta esperientziaz abiatuta dela diote Fernández- Berrocal et al.-ek (2008). Beti ere, adimen emozionalaren lanketa, pertsona orok egin beharrekoa dela kontuan izanda, ez arrisku egoeran dauden kolektiboen partaideek soilik.

Gerver-ek (2015), Grange eskolako zuzendariak, sormena, gozamina, dibertsioa... hezkuntza prozesuaren parte egitearen beharra aipatzen du, ikasle onenak zoriontsu eta seguru, konfiantzaz jokatzeko dutela dio eta bizitzan zehar arrakasta ere hauek izan ohi dutela azpimarratu.

Helburu hau hezurmamitze aldera, Palou-k (2016) HE egokia izan dadin, kontuan izan beharreko lau aspektu aipatzen ditu:

Ingurune soziala: Haurra bizi den ingurune sozialaren arabera izango da bere lotura afektiboak sortzeko modua. Hau da, bere ingurune sozialeko lotura afektiboetan, antsietateak, pozak, galerak... zer nolako presentzia izan, beste testuinguru batzuetan ere lotura afektiboak sortzerakoan honako ezaugarri hauen arabera gidatuko dela haurra esaten digu Palou-k (2016). Honi jarraiki, Gerver-ek (2015) dio, ezinbestekoa dela konfiantzan oinarritutako eskola eredu eraikitzea. Hau lortzeko, Amaia Anterok, Arizmendi Ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko zuzendariak, (Konfiantzaren pedagogia, 2015) irakasleen esku hartzerako hiru eremu identifikatzen ditu, lehena haurraren zainketa, haurrak bere buruarengan eta besteengan konfiantza eraiki dezan, bigarrena Palou-arentzat (2016) horren garrantzitsu den ingurune sozial egokia eraikitzeko baliabideak eta estrategiak uztartzea eta azkenik, ikasleei gaitasunak ahalik eta ondoen garatzeko laguntza eskaintzea: motibatuz, ikaskuntza aktiboaren bidez, ebaluazio hezigarriaren bidez, adimen anitzen lanketarekin...

Baina, konfiantza zergatik da horren garrantzitsu? Gerver-ek ematen digu erantzuna: "Ondo zehaztu gabeko etorkizun baterako prestatzen lagundu behar diegu haurrei; mundu horretan, ekintzaile gisa pentsatzeko eta jokatzeko eskatuko zaie gure haurrei; aukerak identifikatu beharko dituzte, eta, beren trebetasun, interes eta ahalmenetan oinarrituta, onena emateko adorea izan beharko dute." (Gerver, 2015:21). Palou-k (2016) ere berdina dio ikasleei **ziurgabetasunean eroso** senti daitezela lagundu behar diegula aldarrikatzean; bizitzaren konplexutasunari balentriaz egin diezaioten aurre; ezin jakin dezakegu bihar zer gertatuko den, gure ekintzek ze emaitza izango dituzten, baina, etorkizunari balentriaz eta beldur gabe ekitea beharrezkoa da, garapenean aurrera joateko.

Barne elkarrizketak: Adimen emozionalaren garapena aztertzean esan dugun moduan, haurrek euren burua ezagutu, onartu, eta Nia sortu ahala eraikiko dute beraien nortasuna. Nortasunaren garapenean garrantzitsua izango da prozesuan hausnartu ahal izateko barne elkarrizketa sustatzea, tresnak eskaintzea eta nola ez,

denbora uztea. Claudio Naranjoren "seres tricerebrados" (Gorroño-k, 2015 jaso) teoriak dio gizakiok hiru pertsona bagenitu moduan gabela: intelektuala (arauemailea), emozionala (maitasunaren printzipioak dauzkana) eta senezkoa. Orain artean gure izate intelektuala indartzen jardun da eskola, besteak alboratuz, baina gure auto-ezagutzarako hirurak aintzat hartzea derrigorrezkoa izango da, gure Nia osasuntsu eraikitzerakoan.

Atal hau gainera ez da hurrengan soilik eman beharrekoa. Auto-ezagutzak, ingurua hobeto ezagutzen laguntzen digula aldarrikatzen du Gorroño-k (2015), irakasleak bere burua ezagutzen badu, bere ikasleak hobeto ulertuko ditu. Irakaskuntzak bertute asko eskatzen dituela dio, egungo gizarteak irakasten ez dituenak: kemena, onarpena, apaltasuna, pazientzia... eta hauek lantzeko auto-ezagutza omen da bidea.

Gertutasunaren eta distantziaren kudeaketa: Haurra autonomoa izan dadin, besteen beharrik gabe bere bizitzari ekiteko gaitasuna izan dezan, beldurrik gabe etorkizunari aurre egiteko, garrantzitsua izango da helduek babesaren eta gehiegizko babesaren arteko muga ondo kudeatzea. Etorkizunari ekiteko haurrak babestu behar ditugu, baina euren bidea egiterakoan autonomiaz egiten dutela ziurtatuz beti ere.

Anterok (Konfiantzaren pedagogia, 2015) dio, haurra seguru sentitzen den eremuan hasten dela esploratzen, hau da, ikasleei gertutasuna, konfiantza eskaini behar diegula, euren ikaskuntza eraikitzekeo segurtasuna izan dezaten, esploratzeko hain zuzen ere, esplorazio honetan, besteekin elkarlanean sortzen baita ikaskuntza. Puntu honetan, ikaskuntza gertatzen denean, haurren gaitasunak agerian geratuko direla diosku, baita zailtasunak ere, eta irakaslearen egitekoa izango dela hauek behatzea, esku-hartze egokiak antolatze aldera.

Gertutasun eta distantziaren arteko muga aurkitu nahian "Konfiantzaren pedagogiak" garrantzi handia eskaintzen dio espazioaren eraketari, horregatik eskolak eraberritu dira, jada ez dute gelarik, espazio ezberdinetan banatzen dira eskolak, paretarik gabe, interesen, garapen etapen arabera ikasleek espazio bat edo beste erabiltzea erabakitzen dute modu autonomoan, konfiantzazko eremu baten barruan (eskolan); euren garapena modu autonomoan eraikitzekeo espazioak eskaintzen zaizkie hurrei.

Sentsibiltate estetikoa: Imajinazioak, sormenak eta jolasak esanahia ematen diete gauzei, haurrak bizi diren kulturarekin komunikatzen laguntzen diete,

kultura ulertu, partaide bilakatu eta komunikatzeko aukerak eskainiz. Kulturak errealitatea ulertzen laguntzen du, gauzei gizarteak emaniko garrantzia ulertzen laguntzeko eta bertan nola murgildu jakiteko behar da sentsibiltate estetikoa. Honetarako, **pentsamendu irekia** sustatu behar dute eskolek Palou-ren (2016) ustez, ezagutza espezifikoen gainera: Ikasten ikasteko konpetentzia landu behar litzatekeela dio, eduki jakinak irakatsi beharrean. Gai ezberdinekiko jakin-mina bultzatu, hau asebetetzeko aukerak emanaz. Hau lortu nahian, esaterako, Grange eskolan lantzen diren eduki guztiak lau esparru handitan banatu dituzte: komunikazio gaitasunak, espiritu ekintzailea, kulturen ikuspegi nahiz ezagutza zabala eta ongizate fisiko eta mentala izatea (Gerver, 2015).

Hezkuntzaren gaineko ikuspegi berritzaile honetan **konpetentzia emozionalen** lanketa, ongizatea bermatu eta sustatzeko teknika moduan ulertu behar da. Cowenek (1998) (Bisquerra-k, 2002 jasoan), **5 estrategia emozional** proposatzen ditu honetarako: 1) garapen positibo baten konpromisoa sustatzea haur eta hezitzaileen artean; 2) Lehentasunezko gaitasunak garatzen laguntzea haurrari (lagunak egitea, komunikazio eraginkorra...); 3) Estresoreei aurre egiten irakastea; 4) Patuaren gaineko kontrolik badela transmititzea haurrari; 5) Ongizatea sustatzen duten testuinguruez gozatzeko aukera indartzea haurrengan.

Hau guztia aurrera eramateko, aipatu gabe utz ezin dugun beste eremu bat talde-lana eta kooperazioarena da. Palou-k (2016) garrantzia handia ematen dio ikasleei **izaki sozialak** direla irakasteari; autonomiaz ekiten ikasi behar bada ere, testuinguru sozial baten barruan ekiten ikasi behar da. Hau da, besteen beharra dugula ikustarazi behar zaie haurrei, besteekin batera ikasten baitugu (Gerver, 2015) eta honetarako nork bere betebeharrak eta ardura sozialak hartzea derrigorrezkoa da. Sormena eta berrikuntza ez baitira bakarka eraikitzen, taldean jardutea ezinbestekoa zaigu gizakioi (Gerver, 2015).

Beste puntu garrantzitsu bat, irakasleen formakuntza da, Gerver-ek (2015), Konfiantzaren pedagogia (2015), Remiro eta Navascues (2016), Gorroño-k (2015)... denak irakasleen formazio beharraz mintzo dira, Gorroño-k (2015) irakasleen auto-ezagutza aipatzen du, Gerver-ek (2015) garrantzi handia eskaintzen dio irakasleek pedagogia berritzaileen inguruan hausnartzeari, baina denek ere argi azpimarratzen dute, hezkuntza sistemaren aldaketarako, irakasleen formakuntza beharra, euren lanaren birformulazioa gerta dadin.

Konpetentzia emozionalak hezkuntzan txertatzeko eta honek arrakasta izateko irakasleen formazio etengabeaz gain hezkuntza komunitate osoa inplikatzearen beharra azpimarratzen da hainbat artikuluren bidez, Konfiantzaren pedagogia, 2015, Gerver (2015) edo Palou (2016), besteak beste. Elizaran-ek Konfiantzaren pedagogia (2015) ikastetxe eta familien arteko konexioen beharra aipatzen du Haur Hezkuntza etapan ikasleek euren esploratzeko beharra ikastetxean modu aske eta seguruan egin ahal izateko:

“Etxetik espazio berri batera datorrenean, haurrak atxikimenduaren sena aktibatuta badauka, nekez hasiko da espazio berri hori esploratzen. Haurrak sumatzen badu konfiantza-giroa gurasoen eta hezitzaileen artean, hasten da pixkanaka gurasoekiko atxikimendua jaisten eta hezitzailearekin duen atxikimendua aktibatzen; behin hori egin denean, hasiko da espazioa esploratzen” (Konfiantzaren pedagogia, 2015:14).

CURRICULUMA

Azken urtean Euskal Herriko hezkuntza sistema aldaketak jasaten dabil. Batzuk aldaketen alde, besteak aurka, egoera gatazkatsu batean murgildua da hezkuntza sistema; oraindik ere, ezin jakin zer nolako aldaketak izango diren gure hezkuntza sisteman aplikatuko direnak.

Ondorengo atal honetan, Haur Hezkuntza etaparako aginduriko curriculum berria aztertuko da, Lege organiko berritik aldaketarik etorri ez bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua arautzen duen moduan Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio irakaskuntza arautzea, hedadura, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan. Ondorioz, HH etapan berrikuntzak ditugu HEZIBERRI 2020 ekimenaren barnean eta Dekretu aldaketa hauek jasoko dira orain Hezkuntza Emozionalaren inguruan.

Arrakasta da bizitzan zehar gizakiok dugun helburu nagusietako bat: familian, lanean, amodioan, kirolean, ikasketetan... Nork bere mailan, bere metak jomuga hartuta, banaka, taldean... arrakasta da bizitzan zehar gure motore. Hezkuntzaren helburua da “Haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo eta sozial osoa eta orekatua lortzea, honetarako Haur Hezkuntza (HH) etapan beharrezko ikusten diren konpetentziak garatuz” (237/2015 dekretua).

Eskola arrakastarako beharrezko ezaugarrien inguruan ikerketa bat eginez gero, askok pertsona jakintsu izatearekin (edukiei dagokienean) lotuko lukete eskola

arrakasta, Prats-ek (2000) dioen moduan: Pertsona adimentsutzat jo da ikasketa akademikoetan arrakasta eskuratzen zuen pertsona hura, baina, denborak erakutsi du, eskola arrakasta bizi izandako subjektuek ez dutela zertan euren bizi proiektuetan arrakasta izan, edo alderantziz.

Baina, zer da pertsona intelijentea izatea? Eztabaida handia sortu duen gaia bada ere, orokorrean aditu gehienak ados egongo dira Prats-en (2000:44) ondorengo esanekin: "La inteligencia como la capacidad para responder, de la mejor manera posible, a las exigencias que nos presenta el mundo". Arrazoi honexegatik egungo Curriculumak "konpetentziak" erabiltzen ditu. Konpetentzia hitza honela ulertzen duelarik:

"Konpetentzia da irakaskuntza eta hezkuntza-etapa bakoitzeko eduki propioak modu integratuan aplikatzeko gaitasuna, jarduerak behar bezala egiteko eta arazo konplexuak modu eraginkorrean ebazteko." (237/2015 dekretua:6).

Gauzak honela, eta hezkuntza curriculumean jasotzen den bezala, helburua, haurren garapen osoa lantzea bada, dimentsio eta alderdi guztietan, ikasleak, orain arte moduan, eduki akademikoetan hezteaz gain (adimen arrazionalen oinarrituz), adimen emozionalak ere bere lekua izan behar, curriculumak jasoriko "alderdi afektibo eta soziala" garatuz, garapen globalari eragiteko.

Curriculum berrian "konpetentzia emozionalak" erreferentzi zehatzik ez zaie egiten. Hala ere, konpetentzia hauek beharrezko dira curriculumak derrigorrezkotzat jotzen dituen bestelako konpetentziak eskuratzeko.

Orain arte, Hezkuntza Emozionalaren oinarrien inguruan jardun garenean argi geratu da, AEren garapenak gizaki moduan garatzen laguntzen diela haurrei. Curriculumak ondoren aipatzen duena beraz, zuzenean lotzen da AEa garatzeko beharrek.

"Adin horietan, berebiziko garrantzia dute norberari buruzko irudi doitu eraikitze eta haurrek beren burua ezagutu, baloratu eta kontrolatzeko ikaskuntzek, horien bidez jartzen baitituzte euren autonomia eta ekimen pertsonala lantzeko oinarriak." (237/2015 dekretua:2)

Esan moduan "konpetentzia emozionalak" ez dira zuzenean ageri, baina, hauek Oinarritzko Zehar Konpetentzien atalean sar genitzake, konpetentzia multzo

honetakoak baitira bizitzako esparru eta egoera guztietan ager litezkeen arazoan aurrean eraginkortasunez ekiten laguntzen dituztenak.

Metodologiari dagokionean, curriculumak kompetentzietan oinarrituriko hezkuntzaren printzipioak jasotzen ditu: inklusioa izatea eta kompetentzien araberako pedagogia sustatzea (problema konponduz, kompetentziak praktikatuz, edukiak baliabide modura erabiliz, egoera errealek erabiliz, ikaskuntza aktiboa bultzatuz eta tutorea laguntzaile eta motibatzaile izanaz).

Haur Hezkuntzako curriculumak, esan moduan, hezkuntza aldaketa marko jeneralago baten barruan garatu du HEZIBERRI 2020 programak. Azaletik, kompetentzietan eta garapen integralean oinarrituriko hezkuntzarantz egiten du aldaketa, baina, aldi berean, programa honek baditu kontraesanak ere.

Hezkuntza sistemak badu halako dualitate bat: batetik, ikasle kompetenteak hezi nahi ditu, baina bestalde kanpo ebaluazioetara zuzendua da. Egunerokotasunerako trebatu nahi ditugu haurrak, egoera errealean simulazio bidez, baina, gure errealitatek at dauden kanpo eragileek burutuko dituztela ebaluazioak aldarrikatzen dute sindikatu eta kolektibo ugari (García, 2015). Ebaluazio honek, printzipioz, eragin akademikorik izango ez badu ere, hezkuntzaren jarduna ebaluazio hau gainditzera zuzentzea bidera litekeela aldarrikatzen duenik bada (Perez, 2015).

Gauzak honela, egungo curriculum berriak ere ez duela pobrezia emozionala ekiditen laguntzen ondoriozta genezake. Geroz eta trebezia aurreratuagoak dituzten haurrak hezten ditugu, teknologia eta metodologia berrien bidez, baina, emozionalki txirotzen goaz Arandigak (2000) dioen moduan (Abarca-k, 2003 jaso). Gainera, zientzia eta atzerriko hizkuntzen arloek indar hartzen dutela dio Perez-ek (2015), bestelako arlo batzuk ahulduz: musika, filosofia, artea... Honek, adimen emozionala lantzeari kalte egiten diola esan genezake aurrez azaldua den moduan Palou-k (2016) aipaturiko "Sentsibiltate estetiko" esperimendatzeko aukerak gutxiagotzen baitizkie haurrei.

Hala ere, eta lege ororen gaindik, Gerver-en (2015) hitzak gogora ekartzea interesgarria da, eskolak profesionalek eurek zuzendu behar dituztela esaten baitigu, ez politikoei: "Hezitzaile garen neurrian, ez dugu baimenaren zain egon behar. Gure eskolen kontrola geure gain hartu behar dugu, eta gure ustez egin behar dena egin behar dugu". (Gerver, 2015:24).

METODOA:

LAGINA:

Ikerketa honen corpusa izaera guztiz ezberdineko 3 ikastetxeetako HH etapako 3 tutore dira. Bata, Hezkuntza Sistema Publikoko irakaslea, bestea, Ikastolen Elkarteko irakaslea eta azkena, Kristau Eskola bateko irakaslea.

Hemendik aurrera, 1. irakaslea, 2. irakaslea eta 3. irakasle modura egingo zaie erreferentzia.

1. irakaslea, San Andres Herri Eskolako irakaslea da (Ormaiztegi), emakumea, HH5ko tutorea, 24 ikasle ditu eta 34 urte daramatza hezkuntzan lanean. San Andres, eskola publikoa da, lerro bakarreako eta HH eta LH etapak eskaintzen dira bertan.

2. irakaslea, San Benito ikastolako irakaslea da (Lazkao), emakumea, HH4ko tutorea, 25 ikasle ditu eta iazko martxoan hasi zen hezkuntzan lanean. San Benito, Ikastolen elkarteko ikastetxe kontzertatua da, hiru lerrokoa eta HH, LH, DBH eta Batxilergo etapak eskaintzen ditu.

3. irakaslea, La Salle ikastetxeko irakaslea da (Beasain), gizona, HH5ko tutorea, 25 ikasle ditu eta 4 urte daramatza hezkuntzan lanean. La Salle, Kristau eskolen sareko ikastetxe kontzertatua da, bi lerrokoa eta HH, LH eta DBH etapak eskaintzen ditu.

INSTRUMENTUA:

Ikerketa hau egungo hezkuntza sistemako HH etapan, AEaren lanketarekiko irakasleek zer nolako ikuspegia duten aztertzeraz zuzendua da. Adimen emozionalarekiko duten ikuspegia jasotzetik abiatu eta euren jardunean hezkuntza emozionala nola txertatzen duten aztertzeke.

Beraz, ikerketa honen iker galderak honakoak direla esan genezake:

- Hezkuntza Emozionalaren inguruan irakasleek dituzten uste eta iritziak batzea.
- Hezkuntza emozionalaren inguruan irakasle ezberdinek egiten duten esku hartzea ezagutzea.

Ikerketa hau aurrera eramateko garaian, metodo flexible eta estrukturatu gabea erabiliko da, modu honetan ez baitugu jasotako informazioa kutsatu edo baldintzatuko. Irakaslearekin *elkarrizketa* bat burutuko da, adimen emozionalarekiko uste, jakintza (edo eza) eta gelan lantzeko (edo ez lantzeko) metodo esplizitu edo inplizituen informazioa eskuratzeko. Elkarrizketa aurrez aurre burutuko da, lagunarteko giroan eta audio bidez grabatuko da. Elkarrizketaren gidoia aurrez zehaztua bada ere ([ikusi 1. eranskinean](#)) unean aldaketa eta moldaketak gerta daitezke. Gainera elkarrizketaren gidoia aurrez elkarrizketatuei helaraziko zaie, erantzunen inguruan hausnartu, materiala batu edo bestelakorik egin nahiko balute.

PROZEDURA:

Elkarrizketak burutu ostean, eskuraturiko erantzunak elkarren artean alderatuko dira lehenik, irakasleen jardunaren gaineko marko ahalik eta bateratuena aurkitu nahian, ikastetxe ezberdinetan errepikatzen diren esku- hartze, iritzi eta jakintzak detektatzeko.

Bestalde, irakasle bakoitzaren curriculum ezkutua aurkitzen saiatuko gara. Irakasle bakoitzak duen esku hartzea (propioa zein ikastetxekoa) aztertzeko, beste ikastetxeetatik eta irakasleetatik zerk bereizten duen detektatzeko...

Azkenik, emaitzak egungo Hezkuntza Emozionalaren inguruko marko teorikoarekin alderatuko dira. Alderaketa honekin, Hezkuntza Emozionalaren marko praktikoa errealia behatu nahi da. Irakasleen praktika on eta hobetzekoak detektatuz.

EMAITZAK:

Ondorengo emaitzak, irakasle ezberdinekin izaniko elkarrizketetatik atera dira, hiru elkarrizketak aztertu eta egun HE-laren inguruan burutzen den esku-hartzearen marko bateratu bat lortu nahian HH etapan.

Atal honetan eskuratu ditugun emaitzak ahalik eta modu objektiboenean aurkeztuko dira, ondorioen atalean burutuko delarik emaitza hauen inguruko hausnarketa.

Elkarrizketen transkribapen osoak irakurtzeko ikusi ondorengoak eranskinetan: 1. irakaslea ([2. ERANSKINA](#)), 2. irakaslea ([3. ERANSKINA](#)) eta 3. irakaslea ([4. ERANSKINA](#)).

Hezkuntza emozionala definitzen:

Irakasleen definizioak jaso ostean ondorengo ezaugarriak egozten dizkiela Hezkuntza Emozionalari esan liteke:

- Zehatz definitzen zaila.
- Ongizatea eskuratzeko beharrezkoa
- HEla garatzeak hezkuntza kognitiboan aukera gehiago eskaintzen ditu.
- Emozioak eta umeen egoerak nola bideratu egunerokotasunean.
- Emozioak ahalmenak dira (positibo eta negatiboak) eta hauek hezi eta kontrolatzea.
- HEa norberarengan eta inguruarekin landu behar.
- Ez da zerbait puntuala.
- Praktika esanguratsuen bidez egin beharrezkoa.

Guzti honekin, ondorengo definizio bateratua idatz genezake:

"Hezkuntza emozionala definitzen zaila den kontzeptua da. Ez da zerbait puntuala, haurren egunerokotasunean emozioak bideratzean datza. Emozioak, ahalmen moduan ulertzen dira eta hauek hezi eta kontrolatzen ikasi behar da praktika esanguratsu baten bidez, inguruarekin elkarlanean, ongizatea eskuratzeko. Hezkuntza emozionala lantzeak ahalbidetuko du bestelako gaitasunetan ere (kognitiboa esaterako) arrakasta izatea."

Adimen emozionalaren garrantzia:

- Erabatekoa
- Berezko zerbait

- Landu beharrekoa
- Emozionalki gaizki, bagaude motibaziorik ez da.
- Gainontzeko adimenak "batzen" ditu, beste adimenei eragiten die.

1. irakaslea: Gaur egun gehiago baloratzen da, baina: "(...) HHn HE-a beti izan dela ezinbestean presente. Umea geroz eta txikiagoa izan, orduan eta denbora gehiago pasatzen dugu emozioen lanketaren inguruan, ezinezkoa egiten zaiolako egunerokotasun horretan haietatik at gelditzea".

3. Irakaslea: "Gu, eskola moduan, Howard Gardner-en adimen anitzetan oinarritzen gara, "inteligencias multiples". Honela, horien artean bai adimen emozional pertsonala eta inter-pertsonala ditugu. Hauek biak garatzea eta lantzea beharrezkoa da ondorengo inteligentziak ongi barneratzeko. Izan ere, haurra ez badago motibatuta, bere buruarekiko seguru, pozik eskolan, egiten duenarekin gustura... haurrak maila kognitibo egoki bat lortzeko zailtasunak izango ditu".

Ikastetxeek ze garrantzia ematen diote gaiari eta ze baliabide eskaintzen dituzte.

3 ikastetxeetan garrantzia baduela gaiak aldarrikatzen da, nahiz eta HH etapa amaitzearekin batera amaitzen dela "garrantzia" hau esan 2. irakasleak. Ikastetxearen zeregina formazioa, hitzaldiak... eskaintzen zentratzen da 1. irakaslearen. Hezkuntza Emozionalaren lanketa irakasle bakoitzak antolatzen du 1 eta 2 irakasleen kasuan.

La Sallen, berriz, Hezkuntza Emozionala lantzeko programa espezifiko bat dute, euren ikastetxean dauden ikasle guztiek, nerabeak barne, lantzen dutena. Beraz, hiru ikastetxeetan hezkuntza emozionalari garrantzia eskaintzen bazaio ere, hau modu ezberdinean gertatzen dela esan genezake.

Baliabide eta materialak:

- Gipuzkoako Berrikuntza sailak eta Ikastolen elkarteak sorturiko Adimen Emozionalaren inguruko programazioak.
- "Sentir y pensar".
- HARA programa, La Salle ikastetxean.

Irakasleen formakuntza:

- 1. Irakaslea: A Eren inguruko ikastaro bat (4 ordu) eta hitzaldi bat "Sentir y Pensar" metodoaren inguruan.
- 2. Irakaslea: Unibertsitateko esperientziak eta *Adimen anitzen* inguruko ikastaro bat (*ez du hezkuntza emozionalarekin lotutako formakuntza gisa aipatu*).
- 3. Irakaslea: Unibertsitateko esperientziak, besterik ez omen du egin, baina badu aukera. Praktikan lantzen duen programan trebatzeko, hilabeteko egonaldia eskaintzen omen dute kristau eskolek, baina zuzendaritzatik aukeratzen dira partaideak eta oraindik ez zaio tokatu.

Irakasleek Hezkuntza Emozionalarekin zerikusia duten proiektu eta programa ezberdinen ezagutza:

Eskoletan erabiltzen dituzten materialak.

Konpetentzia Emozionalen ezagutza:

Teoria gutxi landuta gaiaren inguruan.

Konpetentzia emozionalak izendatu ostean...

1. irakaslea: Geroz eta konpetentzia emozional gehiago landu orduan eta hobe.

Ongizaterako gaitasuna: pertsona orok berezkoa dugu eta emozioen motorra da.

Erregulazioa: emozioak positibo edo negatiboak izan daitezke eta erregulatzen jakin behar da.

Gaitasun sozialak: erregulazioaren ondorioz, norberarekiko eta besteekiko ondo jardutea.

Kontzientzia emozionala: gutxien landu izan dena eta orain garrantzia gehiago du.

2. irakaslea: Gehien bat, *identifikazioa eta kontzientzia:* emozioak umeari nola eragiten dion eta horrek dituen ondorioak.

3. irakaslea:

- *Kontzientzia emozionala:* *haurrak bere kontzientzia lasai eta garbi izan behar du, hau horrela izan dadin, sentimendu eta emozioen lanketa bat egin behar da, hauek ongi garatuta egon behar dutelako. Izan ere,*

kontzientziaren arabera haurra modu batera edo bestera sentituko da, eta honek eragingo dio ekintzak modu batera edo bestera egitea.

- **Emozioen autoerregulazioa:** *haurrak baliabide ezberdinak bilatu behar ditu emozioen artean oreka aurkitzeko. Hau da, haurrak jasango dituen egoera ezberdinek modu batera edo bestera eragingo diote, honela, bien arteko oreka bat bilatu behar du, "Neurria" bilatu behar du.*
- **Autonomia:** *Haurrak bere kabuz hainbat emozioen barneraketa egoki bat eduki behar du. Izan ere, egia da guraso, irakasle eta beste zenbaitek horien lanketa bat egin behar dutela, baina, haurrak bere autonomia hori ateratzea ezinbestekoa da: autoestimua edukitzea, jarrera baikorra izatea bizitzarekiko eta gertatuko zaizkion arazo ezberdinei aurre egiteko, arduratsua izatea bai bere buruarekiko eta bere inguruan daudenekiko, laguntza aurkitzeko autonomia hori izatea eta horretarako baliabide batzuk aurrera eramatea...*
- **Enpatia:** *bestearen lekuan jartzeko gaitasuna izatea. Haurra ahalegindu behar da jakiten ondoko pertsona nola sentitzen den, zein emozio jasaten ari den... nik egunerokotasunean asko ibiltzen dudana da hau. Izan ere, gatazken aurrean eta hauek konpondu ahal izateko ezinbesteko konpetentzia bat dela uste dut: batak besteari zerbait gaizki egin dionean galderak eginez adibidez: zergatik jo duzu? Nola sentitu zarela? Lagunari jo diozunean nola sentitu dela uste duzu? Triste ala pozik dagoela uste duzu?...honela, ondokoaren paperean jarri behar dutela erakutsi nahi izaten diet, norberari gustatzen ez zaiona besteei ez zaiela egin behar landuz.*
- **Gizarteratze konpetentzia:** *egunerokotasunean jasango dituen egoera ezberdinei aurre egiteko baliabide eta ezaugarri ezberdinak bereganatzea.*

3. irakasleak konpetentzia hauen lotura azpimarratzen du, modu integral batean eskuratzeko modu global batean landu behar direla, ez gaitasunak modu indibidualean landuz. Konpetentziak elkarlotuta ez badira ulertzen hezkuntza emozionalaren porrota ematen omen da.

Adimen Emozionalaren lanketa eguneroko jardunean:

1. irakaslea: "Momentu oro lantzen dugu AEa".

- **ARDURADUNA:** *Egunero arduradun bat izatea gelan, ikasleei "ardurak" hartzen hasten laguntzen die, egun horretan oso puntual etortzen dira*

normalean. Egun horretako arrakastak autoestimuan ukitzen ditu bete betean. Ardura hauek ondo bete nahiak, ikasteko motibazioa pizten die, gelakideen eta norberaren izen zerrenda (idatzia) ezagutzeko motibazio handia izatea.

- **URTEBETETZEAK:** Urtebetetzeak kontuan hartzeak eta taldean ospatzeak (bakoitzak marrazki bat egiten dio omendutakoari), autoestimu eta talde zentzua gehitzen du modu handi batean. Eta honek egiten du bai zenbakiak, hilabeteak, bai eta, besteen izenak, ikasteko motibazio handia izatea.
- **TXOKOAK:** txokoetan lan egiteak materiala partekatzeko aukera gehiago ematen digu. Sarri, gauza bera eduki nahi izaten dute eta hau liskar iturri izaten da, erregulazio emozionala eta gaitasun soziala lantzen ditugula momentu hauetan uste dut.
- **NORBERAREN ARDURAK:** bakoitzak berak egin behar dituenaren ardurak bultzatzen ditugunean, autonomia lantzen dugu: bakoitzak bere lanak egin eta karpetan jasotzen ditugunean, denon materiala zaindu eta jasotzen dugunean, bakoitzak bere arropa eta motxilaren ardura izaten dugunean, komunera bakarrik joaten garenean...
- **ARAUAK BETETZEAN:** Arauak lantzen ditugunean emozioen kontrola lantzen dugu. Ikaskideren bat denontzat ari denean hitz egiten, besteak isilik entzun egun behar dugu, gelan korrika eta zarataka ezin da ibili...
- **PENTSATZEKO TXOKOA:** Oso garrantzitsua izaten da emozioen lanketarako pentsatzeko eta haserrealdiak kudeatzeko txokoa izatea. Geldialdia egin, pentsatu, hitz egin eta adostu. Hemen konpetentzia emozional guztiak lantzen direla esango nuke, era batera edo bestera.

2. irakaslea:

- **SENTIMENDUEN TXOKOA:** Geletan sentimenduen txokoa dute, bertan beraien argazkiak dituzte eta nahi dutenetan, beraien uneko egoera emozionalaren arabera, argazki bat edo beste jartzen dute. HH3rekin hasten dira, triste eta pozik, dituzten bi argazkirekin eta gero HH4n, triste pozik eta haserre, honela beraien egoera emozionala identifikatzen eta kontzientzi hartzen dute.
- **LANKETA BEREZIAK:** Noizean behin ikusten dugun behar bereziren batengatik, lanketa bereziak egiten dira, mural bitartez edo jolas ezberdinen bitartez. Muralak: esaterako, aurpegiak (triste eta pozik) eta beraiek identifikatu behar dituzte argazki ezberdinetako pertsonak triste edo pozik dauden. Ariketa espezifikoak ere badira, Urtxintxarekin lotuta dago, orain arte Urtxintxakin lan

egin dugu, ez da dena lotzen, baina, esaterako "Inurri eta Txirritaren" ipuinarekin zerikusia duten ariketak daude Gipuzkoako berrikuntza saileko materialean... Beste batzuk ez dute loturarik, ariketak dira, baina erreza da txertatzea metodoan, oso ariketa sinpleak dira umeentzako oso errazak.

- **EGOERA BEREZIAK:** Gero kontuan hartzen da, esaterako aurten, familia askok anai arreba txikiak izan dituztela eta horrek haurrei asko eragiten diela. Honek sortutako egoerak ere aintzat hartzen dira: egunerokotasunean umeak nola dauden, agian, beti etorri da pozik eta orain ez duela gelditu nahi... eta zergatik ez duzu gelditu nahi?. Haurrek ez dute hizkuntza gehiegirik; gehien bat haurra ulertzea da eta errespetatzea, zergatik une horretan ez duen eseri nahi: identifikatu, ulertu eta errespetatu. Gero, besteekin ere hitz egiten da, gainontzeko ikasleekiko enpatia lantzeko.

3. irakaslea:

- **SEMAFOROA:** Adibidez, aste honetan, "**Semaforoaren**" dinamika jarraitu dugu. Haur bakoitzari semaforo bat ematen zaio Astelehenean eta bere apalean uzten du. Honela, egunaren amaieran haurrak gometxa bat jarri behar du bere semaforoan: gometxa berdea jarriko du ongi sentitzen bada, erdipurdi sentitzen bada horia jarriko du, eta gaizki sentitu bada gorria. Honela, irakasle bezala hartzen dudana papera hau da: etxera joan baina hamar minutu lehenago haur bakoitzari bere semaforoa ekartzeko esaten diot eta berak jarritakoa talde handian partekatzen dugu: zein gometxa jarri duzu? Zergatik? Gorria jarri badu...zergatik? Nola sentitzen zara? Zer egin dezakegu hau konpontzeko?...dinamika benetan interesgarria da eta haur guztiak oso gustura sentitzen dira.
- **HARA PROGRAMA:** Orain arte 5 urteko gelan landu dira: "lagunen laguna naiz", "norbera maitatzearen garrantzia", "ondokoa zaindu behar da", "errespetuz bizi behar da"...

Astean gai nagusi bat izaten dugu, honela, egunero azkeneko 20 minutuak berari eskainita izaten dira, ipuin, marrazki, bideo ezberdin bat lantzen da egunero, pentsarazteko. Aste amaieran landu dugun gaiaren inguruan zer ikasi duten azaldu behar dute haurrek talde osoan eta nola sentitzen den bera edo ondokoak gai bakoitzak landuriko egoeren aurrean. Honez gain, astean 2 dinamika ezberdin jorratzen ditugu, 30 minutu ingurukoak. Esaterako: "**Bidaia Magikoa**": haur guztiak gelan zehar etzaten dira eta gela ilun uzten da kortinak

itxiz eta argi guztiak itzaliz. Ondoren, erlaxatzeko musika jartzen zaie eta denbora pixka bat pasatu ondoren, bidaia magiko batean murgildu daitezen ahalegintzen gara hainbat ideia emanez: Lehenbizi, gehien gustatzen zaizuen leku bat pentsatu behar duzue... bertan gehien maite dituzun pertsonekin zaude, jarraian, zure ametsetako jolasean ari zarete jolasean... honelako ideiak botatzen dira, eta saioa bukatzean, haurrek beraien bidaia magikoa kontatu behar diete beraien ikaskideei.

Denboralizazioa:

1. irakaslea: Ez du denboralizazio berezirik.

2. irakaslea: Egoera espezifikoaren aurrean antolatzen du egitekoa.

3. irakaslea: Asteka antolaturik dute euren programa, baina unean uneko egoerei ere garrantzia ematen zaie.

Atxikimendu irudi gisara egitekoa:

- Eredu izan.
- Ikasleak: animatu, motibatu, lagundu, kontentzioa landu, arauak landu...
- Haurrak eroso sentiarazi, konfiantza eskaini.
- Haurrak ongi ezagutu, bere bizipenak ulertu eta aurrera bidean laguntzeko.

Gatazkei nola egiten zaie aurre:

- Ikasteko aukera moduan ulertu.
- Arazoak hitz eginez konpondu:
 - 3. Irakaslea: haur bakoitzari utzi hitz egiten ea zer gertatu den jakiteko; bakoitza nola sentitzen den adierazi dezaten. Ondoren, zer egin behar duten sortu duten gatazka berriz gerta ez dadin...
- Hizkuntza landu bitartekari izanez.
 - 2. Irakaslea: ikasle denek ez dute hizkuntza gaitasun bera, eta une hauek aprobetxatzen dira irakaslearen bitartekaritzarekin hizkuntza lantzeko, ikasle denek gatazkak hizkuntzaren bitartez konpontzen gai izateko eta hau tresna erabilgarri gisa ulertzeko.
- Espazio bat eskaini: pentsatzeko, hitz egiteko eta aukera berriak eman.
 - 1. Irakaslea: estrategia bat da egunero paper txuri bat jartzea, arau hausteren bat eginez gero, izena bertan jartzen da, hitz egin, pentsatu, hausnartu... eta aukera berri bat eman. Egunean 3 aukera daude,

ikasleren baten izena paperean 3 aldiz ageri bada, arratsaldean pixka-
bat gehiago gelditu behar da eginikoaren inguruan pentsatu eta
zuzentzeko (jostailuak jasotzen esaterako, hauek bere orduan jaso ez
baditu). Hurrengo egunean paper zuri berria hasten da, ikasleei euren
jarrera eta emozioen inguruan hausnartzen eta kudeatzen
laguntzeko.

ONDORIOAK

Aurkezturiko lanak bi atal izan ditu, eta bakoitzean Hezkuntza Emozionalaren inguruko definizio bana ikusi da, orain landuriko teoria eta praktikaren arteko alderaketa bat egitetik eratorritako emaitzak ondorioztatzeko garaia da. Lehenengo, definizioak aztertzen hasiko gara:

Marko teorikoan Bisquerraren (2010) definizioa garatu da:

“Proceso educativo, continuo y permanente, que pretende potenciar el desarrollo emocional como complemento indispensable del desarrollo cognitivo, constituyendo ambos los elementos esenciales del desarrollo de la personalidad integral. Para ello se propone el desarrollo de conocimientos y habilidades sobre emociones con objeto de capacitar al individuo para afrontar mejor los retos que se plantean en la vida cotidiana. Todo ello tiene como finalidad umentar el bienestar personal y social.” (Bisquerra, 2010: 5)

Ikerketen emaitzei erreparatuta aldiz ondorengo emaitza sortu da:

“Hezkuntza emozionala definitzen zaila den kontzeptua da. Ez da zerbait puntuala, haurren egunerokotasunean emozioak bideratzean datza. Emozioak, ahalmen moduan ulertzen dira eta hauek hezi eta kontrolatzen ikasi behar da praktika esanguratsu bidez, inguruarekin elkarlanean, ongizatea eskuratzeko. Hezkuntza emozionala lantzeak ahalbidetuko du bestelako gaitasunetan ere (kognitiboa esaterako) arrakasta izatea.”

Azpimarraturiko ideietatik ondoriozta daitekeen moduan, egungo irakasleek HEa definitzen zaila den kontzeptu moduan ulertzen dute, hala ere, beraien uste eta ideiak adituenekin bat datozela esan genezake.

Ezin ahaztu, ordea, aurkezturiko definizio hau, irakasle ezberdinek eskainiriko definizioetatik eskuratua izan dela eta ondorioz, irakasleen artean ezberdintasunak egon daitezkeela.

Hala ere, irakasleek aldarrikatu duten formazioa aintzat hartuta, modu positiboan baloratu genezake definizio hau. Elkarrizketetan aipatu duten ezagutza maila aintzat hartuta, definizio honen muina, beraien esperientziaren ondorio ere badela

esan baikenezake (ez soilik "ikasi" dutena). Beraz, adituen esanak eta profesionalen ekinak, bide beretik doazela ondoriozta liteke. Egitekoa asko bada ere, egina bide onetik doala baitirudi.

Elkarrizketa burutzerako garaian argi geratu da, gai honen inguruan ikastetxe mota ez dela HE-laren lanketan eragile bakarra. Hau da, 3. irakasleak ikastetxearen metodologiari jarraiki lantzen duela AEa aipatu du, baina, gainontzeko kasuetan irakaslearen esku geratzen dela HE ikusi da. Gauzak honela, irakasleen jarduna "sistematizatea" egokia litzatekeela dirudi.

Baina, sistematizazio honek nolakoa behar lukeen izan zehaztea ez da erraza. 3. irakasleak beraien HARA proiektua aurkeztu digu, bertan modu erabat sistematikoan lantzen da Hezkuntza Emozionala. Honen arrisku bat izan liteke Hezkuntza Emozionala "eremu" berri moduan barneratzea, bai ikasleek bai eta irakasleek ere. Garrantzitsua da azpimarratzea, Bisquerra-ren (2010) ideiak berriro gogora ekarriz, HEak ez duela zerbait puntuala izan behar, hezkuntza sisteman uztartu beharreko prozesu bat baizik, ez proiektu soil bat. Gainera, kristau eskoletan landua, HEaren inguruko oso proiektu espezifikoak izan arren eta irakasleak gaiarekiko erakutsi duen filosofia akademiko eta landua izan bada ere, ondoren, gaiarekiko ezagutza gutxi adierazi du.

1. irakasleak bere eguneroko jardunean Hezkuntza Emozionala nola garatzen duen azaldu digu, bere eguneroko errutinetan modu sistematikoan lantzen duelarik. Kasu honetan, lan metodoaren barnean naturalki lantzen omen du HE, baina, HEaren inguruko programaketa ezak, AE globaltasunean lantzen dela bermatzea zail bilakatzen du. Irakasle honek eginaren kontzientzia badu ere, egiteke denaren ezagutzarik ez du eta ondorioz ezin detektatu eta antolatu hobetzekoak HEari dagokionean.

Hiru kasuek errealitatea islatzen dutela uste da, metodo erabat ezberdinak jorratzen dira, denak kalitatezko hezkuntza eskaintzea helburu hartuta, baina agian denen arteko hausnarketa bat egin eta bidea birformulatzea falta da.

Batetik, bistan da ikasleen artean kritikotasuna eta nork bere baloreak eratzea nahi bada, irakasleek ere hau egiteko eskumena izan behar dutela. Ondorioz, Hezkuntza Emozionalak ez lukeela zerbait guztiz programatua izan behar uste da, baina, aldi berean, irakasleek euren jardunaren kontzientzia hartu behar luketela, zer egiten

duten behazetik zer egin behar duten jakiteko. Marko teorikoan ikusi moduan, egun hobesten den Hezkuntza Emozionala ez da metodo bat, testuinguru egoki bat baizik. Honetarako bistan da egoeraren antolaketa eta esku-hartze kontziente bat egin behar direla, baina eguneroko bat-batekotasunari protagonismoa emanaz.

Hau lortzeko, beharrezkoa da aditu gehienek aipaturiko formazioa. Deigarria da hiru irakasleek formazio falta aldarrikatu dutela (baita erakutsi ere, eduki zehatzen inguruan galdetzean).

Adierazgarria da, bi kasutan Adimen Anitzen inguruko formazioari erreferentzia egin zaiola, baina bakarrak ikusi duela honen eta hezkuntza emozionalaren arteko lotura. Formakuntzak oso zehatzak izan ohi dira; aditu eta formakuntza jasotzen duten profesionalen lana da eskuraturiko informazio "zehatza" marko globalago baten barnean txertatzea; bestela, informazioa diziplinarteko egin ezean, erabilgarritasuna galtzen du. Ikasleek konpetentziak eskuratzea nahi dugu, eremu eta egoera ezberdinetan aplikagarri izango zaizkien gaitasunak eskuratzea, baina, bistan gelditu da, hau lortzeko beharrezkoa den hausnarketa irakasleek eurek ere ez dutela burutzen. Palou-k (2016) esan moduan input asko dugu gure inguruan, baina, ez diogu hau asimilatzeari denborarik eskaintzen.

Honek, beste puntu batera garamatza: teoria eta praktikaren arteko zubia, irakasleak berak egin beharrezkoa da. Formakuntza praktikoa izanagatik ere, ezinezkoa da errealitatean aurki ditzakegun egoera guztietan banaka trebatzea. Egoera orotarako prestatzeko dugu "teoria", baina hau nola aplikatu eremu orotan da irakaslearen egitekoa. Ikastaroetan, zuzendaritzatik, unibertsitatetik, ezagutzak jasoko dira, egiteko pautak eta jarraibideak eskuratu, baina, hauek praktikan uztartzen asmatu ezean, irakaslearen esku geratzen da HEa %100ean. Aldiz, klaustroa marko teoriko komun baten gainean lanean badabil, egoera ezberdinei ze printzipioen arabera aurre egin adostua bada..., eskolako HEa aberatsagoa izango da eta errazagoa izango da aurrerako etapetan ere jarraipena ematea.

HEa eta irakasleen sentsibilitatearen gaineko beste eragile bat esperientzia izan liteke. Hezkuntzan denbora gehien daraman irakasleak (1. irakaslea), bere eguneroko jardunean Hezkuntza Emozionalak duen garrantziaren inguruan oso kontziente agertu da. Bere HEa garatzeko modua egunerokotasunean txertatzen duela argi azaldu du: urtebetetzeak, talde sentimendua; arduraduna, ardurak hartzea; ikasleen izenak, motibazioa... Beste irakasleek, ez dute HE-la curriculum

ezkutu bidez lantzen denik aipatu ere egin; egunerokotasunean presente dela bai, baina ez dute azaldu presentzia hori nolakoa den.

Curriculum ezkutu hau azaleratzerakoan aditu eta ikerlariak badutela zer egin esan genezake. HHan badira praktika on batzuk, ikastetxe, irakasle eta metodo gehienek errepikatzen dituztenak. HEari dagokionean adituek egiteko lan interesgarria litzateke praktika hauek haurren AEan duten eragina aztertzea.

Haur Hezkuntzan ohikoak diren praktiken curriculum ezkutua bistaratzea lagungarri izan daiteke, irakasle askok teoria eta praktika lotzerakoan ageri duten zailtasuna gainditzen laguntzeko. Esaterako, elkarrizketa honek bi galdera oso zehatz egin dizkie elkarrizketatuei: *atxikimendu irudi gisara zein da zure papera? Eta gatazkei nola egiten zaie aurre?* Hiru irakasleek atxikimendu irudi gisara: konfiantza eman, eredu izan... bezalako ideiak bota dituzte, baina zertarako? Atxikimendu irudiaren inguruan ikerketa ugari burutu izan dira, badirudi, irakasle orok dakiela atxikimendu irudi bilakatuko dela ikasleentzat, eta ondorioz erlazio hau landu behar duela, baina "zertarako?" bezain galdera garrantzitsuei azaleko erantzunak ematen besterik ez dakite irakasleek.

Gatazken kasuan ere, hirurek komunikazioa azpimarratu dute, bai eta aukera berriak eskaintzea ere, ideia hauek teoria jakin batzuk lantzen dituzte inplizituki, Skinneren teoria konduktista zantzurik ez da hemen esaterako, baina ze teorien arabera oinarritzen duten euren jarduna ez dakite irakasleek. Ez dakite AEari dagokionean emozioen erregulazioa lantzen ari garela gatazkei perspektiba honetatik ekitean, gure gaitasun sozialak lantzen gabiltzala. Legedi berriak aurkeztean ere, aldaketak zein izango diren sarri entzuten da, baina zeren arabera egin diren ez da esaten, teoria pedagogiko berriak, filosofia politiko ezberdinak... Aldaketak ulertu ezean, ezin gara aldaketen eragile bilakatu.

Elkarrizketetatik eratorritako beste ondorio bat da, adimen emozional kaxkarra, errendimendu akademikoaren zailtasunekin lotzen dutela. Ideia honek, historikoki hezkuntza kognitiboak izan duen garrantzia gure inkontzientean oraindik hor dela adierazten du. Adimen emozionala, etorkizunean arrakasta eskuratzeko tresna dela uste izan arren eta hezkuntza kognitiboa bigarren postu batean jarri, elkarrizketatutako irakasle batzuk, HEa lantze ezak Hezkuntza kognitiboan porrota ekarriko duela diote (HEa lantzea beharrezko tresna gisa ulertuz, hain derrigorrezko zaigun emaitza akademikoetan arrakasta izateko). Adituek beste

hainbat ondorio larriagoak aipatzen badituzte ere, hezkuntzan egunero lanean diharduten profesionalek oraindik ere emaitza akademikoekin lotzen dute AEa.

Azkenik, egungo Hezkuntza Marko Politikoaren ezaugarri nagusietariko batek zuzenean eragiten diola Hezkuntza Emozionalari esango nuke. Ziurgabetasuna da egun ditugun legedien ezaugarri nagusietarikoak. Gaur errebalida egin behar da, baina bihar ez, gaur helburuetan hezi behar ditugu haurrak eta bihar kompetentzietan... Haurrak konfiantzan hezi behar ditugula genion atal teorikoan, ziurgabetasunaren aurrean moldatzen gaitu behar ditugula. Bada, lehen erronka irakasle moduan, ziurgabetasunean hezten ikastea da. Irakasleek kompetentzia emozionalak garatuta izan behar dituzte, argi ikusi den moduan ezer zehaztu gabeko testuinguruetan hain garrantzitsua den Hezkuntza Emozionala landu behar baitute; eta Gerver-ek (2015) aipaturiko irakasleen ahalduntzea burutu behar baita.

Ondorioen atal honi amaiera emateko, laburpen gisara esan genezake, Haur Hezkuntza etapan, Hezkuntza Emozionalak presentzia baduela eta buruturiko bidea adituen esanekin koherentea dela, baina, oraindik ere zer landu asko geratzen dela, formakuntzaren inguruan eta gaiarekiko irakasleen kontzientziazioan batez ere. Beraz, hasieran aurkezturiko hipotesia ez dela guztiz zuzena ondoriozta genezake, teoriak presentzia badutelako, baina presentzia honen izaera normalizatzea dela oraindik egiteko duguna ondorioztatzen baitugu.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Ondorioak aurkeztu ostean, agerian geratu diren hobetzeko puntu batzuk berriro jaso nahi dira atal honetan, ikastetxeek etorkizunari begira burutu beharreko lanketaren inguruan ideia batzuk luzatze aldera.

Bistakoa da, lehen lehenik ikastetxeek Hezkuntza Emozionalaren gaineko hausnarketa burutzetik hasi behar luketela; hau lantzeko, beraien plan propio bat eraikiaz. Hausnarketa hau modu indibidualean burutu ohi dutela irakasleek ikusi da ikerketan zehar; aldiz, hausnarketa ikastetxe mailan burutzeak, hezkuntza etapetan zehar HEren jarraipen eta lanketa bateratuagoa bermatuko duelakoan gara.

HEren inguruko plan honek beraz, ikastetxeak gaiarekiko duen ikuspegia jaso behar luke lehen lehenik eta hau beraien jardunean nola uztartu bigarrenik: material zehatzik izango den edo ez, irakasleek zer landu behar luketen, egoera espezifikoek kasuan aurrera eramango diren protokoloak..., beti ere, kontuan hartuz HEa ez dela zerbait puntuala, une oro presente izango den ezkutuko lanketa baizik.

Azkenik, irakasleek HE hau aurrera eraman ahal izateko, hain argi geratu den formakuntza falta nola beteko den ere erabaki behar lukete ikastetxeek: barnetegi bidez, ikasturtean zehar antolatutako formakuntza planaren barnean, hitzaldi bidez... irakasleek euren esku hartzearen garrantziaz jabetu eta hau aurrera eramateko tresnak eskura ditzaten.

Ikerlan honetan aurkeztu diren emaitzek, ikastetxe ezberdinek proposamen hauen inguruko gerturatze ezberdinak nola burutzen dituzten (edo ez dituzten burutzen) azaldu duelakoan gara. Hala ere, kontuan izan behar da, ez dela gaien "bikaina" den ikastetxerik, gaiari gerturapen ezberdinak egin ahal zaizkiolako, baina beti "bikaintasuna" aurkitu nahian.

Lan hau amaitzeko, aipatzekoa da, etorkizunari begira iker lerro berri batzuk azaldu zaizkigula:

- Lehenik, eta buruturiko elkarrizketek adierazitako metodo ezberdinek ikasleengan ere eragin ezberdina izango duen premisatik, interesgarria izan liteke, metodo bakoitzaren eragina aztertzeko, denboran zehar luzatuko den ikerketa bat burutzea. Honela, hemen aurkezturiko metodoak ezagutzeaz

gain bakoitzaren ebaluazio bat egiteko gai izango bailirateke ikerlariak eta ondorioz metodologia "egokienak" sailkatu.

- Beste iker lerro interesgarri bat izan liteke, HH etapan HE lantzerakoan interesgarritzat jo diren estrategia eta baliabideak, lehen eta bigarren hezkuntzan ze nolako emaitzak eskuratzen dituzten aztertzea, aditu zein irakasleek esan moduan, jarraipen honen gabeziak agerikoak baitira.
- Ondorioen atalean aipatu den "ohiko praktiken" inguruko ikerlarien analisi bat ere oso interesgarria izan liteke. Gure esku hartzeak ze nolako eragina duen jakiteko. Ia ikastetxe eta metodo gehienek dituzte: lasaitze txokoa, errutinak, egun bereziak, gatazkak kudeatzeko metodo eta espazioak... hauek banan bana azertu eta ze curriculum ezkutu lantzen duten behatzeak, irakasleen lana erraztu lezake, beraien jardunaren gaineko kontzientzia hartzen laguntzen duelako eta gabeziak azaleratzen dituelako.

BIBLIOGRAFIA:

- 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa. Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA 16/01/15)
- Abarca, M. (2003). *La educación emocional en la Educación Primaria: Currículo y Práctica*. (Doktorego tesia, Universitat de Barcelona). Hemendik jaso: <http://docplayer.es/13644252-La-educacion-emocional-en-la-educacion-primaria-curriculo-y-practica.html>
- Aierdi, A., Lopetegi, B. eta Goikoetxea, K. (2008). *Adimen emozionala Derrigorrezko bigarren hezkuntza*. Gipuzkoa: Gipuzkoako foru aldundia.
- Antxustegi, J. (03/2016). Norbere lanaren behaketa. *Hik Hasi*, 206: 34-35.
- Berritzegunea g05. (dg.). *Emozioen Hezkuntza*. Zarautz: Berritzegunea
- Bisquerra, R. (2002). La Competencia Emocional. In: Álvarez, M. & Bisquerra, R. (Eds.). (2012). *Manual de orientación y tutoría* (pp. 144/69- 144/83). Barcelona, Praxis.
- Bisquerra, R. (2010). *Orientación psicopedagógica y educación emocional en la educación formal y no formal*. Barcelona: Universidad de Barcelona. Hemendik jaso: <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/3448/b15760364.pdf?sequence=1Caso>
- Bisquerra, R. (2016). *Rafael Bisquerra*. Espainia: GROP. Hemendik jaso: <http://www.rafaelbisquerra.com/>
- Etxeberria, A. (2008) *Adimen emozionala*. Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gaeta, M., Teruel, P., eta Orejudo, S. (2012/04/01). Aspectos motivacionales, volitivos y meta cognitivos del aprendizaje autor regulado. *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*, 10(1), 73-94. Hemendik jaso: <http://www.investigacion-psicopedagogica.org/revista/new/ContadorArticulo.php?640>
- García, M. (2015/03/15). LOMCEren aurrean, zer lortu du eta zer ez jaurlaritzaren curriculumak?. *Argia*. Hemendik jaso: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2453/heziberri>

- Richard Gerver: "Ikaslea ahalduntzeko ideia izan behar dugu oinarri eskoletan, eta ez kontrolarena". (2015/12/22). *Hik Hasi*, 203. Hemendik jaso, 2016ko azaroaren 04an: <http://www.hikhasi.eus/albistea.php?id=1134>.
- Goleman, D. (1995). *Inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.
- Gorroño, N. (12/2015). Nola lagun diezaioke autoezagutzak irakasleari, bere eguneroko jardunean?. *Hik Hasi*, 203, 36-38
- Konfiantzaren pedagogia: Norberarekin, besteekin eta inguruarekin harremanetan. (12/2015). *Hik Hasi*, 203. Hemendik jaso, 2016ko azaroaren 10ean: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/2373>.
- Remiro, A. eta Navascues, A. (03/2016). Gorputzaldiak. *Hik Hasi*, 206. Hemendik jaso, 2016ko azaroaren 10ean: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/2408>
- Fernández-Berrocal, P, Extremera Pacheco N.(2002/08/25). La inteligencia emocional como una habilidad esencial en la escuela. *Revista Iberoamericana de Educación*. Hemendik jaso: http://rieoei.org/rie_contenedor.php?numero=par_com1&titulo=La%2520inteligencia%2520emocional%2520como%2520una%2520habilidad%2520esencial%2520en%2520la%2520escuela
- Fernández- Berrocal, P, Ruiz Aranda, D. (2008/09/04). La inteligencia emocional en la educación. *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*, 6(2): 421-436. Hemendik jaso: <http://www.investigacion-psicopedagogica.org/revista/new/ContadorArticulo.php?256>
- Palacios, J., Marchesi, A. & Coll, C. (compilación). (1999). *Desarrollo psicológico y educación*. (2º ed.). Madrid. Alianza
- Palou, S. (06/2016). SILVIA PALOU: Emozioak dira giza harremanen motorra eta gure bizitzako elementurik garrantzitsuena. *Hik Hasi*, 209. Hemendik jaso, 2016ko azaroaren 10ean: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/2437>.
- Perez, A. (04/2015). LOMCeri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki. *Hik Hasi*, 197. Hemendik jaso, 2016ko azaroaren 10ean: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/2316>.
- Prats, L. (2000/10). Inteligencia emocional: el uso inteligente de las emociones. *Capital Humano*, 137, 44-48.

HEZKUNTZA EMOZIONALA HAUR HEZKUNTZAN GRADU AMAIERAKO LANA

ERANSKINAK

AURKIBIDEA:

1. ERANSKINA: Elkarrizketa	1
2. ERANSKINA: 1. Irakaslea (transkribapena)	2
3. ERANSKINA: 2. Irakaslea (transkribapena)	6
4. ERANSKINA: 2. Irakaslea (transkribapena).....	9

1. ERANSKINA: elkarrizketa

Elkarrizketatuaren datuak:

Lan egiten duzun ikastetxea eta izaera:

HH maila eta lerroak:

Ikasle kopurua:

Irakaskuntzan urte kopurua:

Galdeketa:

- ★ Zer ulertzen duzu Hezkuntza Emozional (HE) gisa?
- ★ Lanean zabiltzan ikastetxean, nola ulertzen da? ze garrantzi duela HE esango zenuke?
- ★ Konpetentzia emozionalak ezagutzen dituzu? Nola definituko zenituzke? Ze azpi atal dituzte? (Kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia, gaitasun soziala eta ongizaterako gaitasuna).
- ★ Zein dira lantzen direnak eta nola? Zure ustez ze konpetentzia emozional dira landu beharrekoak?
- ★ Formakuntzarik jaso duzu honen inguruan?
- ★ Proiektu edo programa pedagogikorik ezagutzen duzu, konpetentzia hauetan sakontzen duenik?
- ★ Eguneroko jardueran adimen emozionalaren lanketa burutzen duzula esango zenuke? Ze modutan? Nola hobetu liteke zure ustez?
- ★ Denboralizazio aldetik nola duzu antolatuta?
- ★ Ikastetxeak HE lantzeko inolako programazio, materia edo jarraibiderik eskaintzen dizu? Zuk baduzu? Behar duzula iruditzen zaizu? Zergatik?
- ★ Adimen Emozionalak ze garrantzi duela iruditzen zaizu eta zergatik?
- ★ Edukiekin alderatuz (matematikak, hizkuntza...) ze garrantzia duela uste duzu? Duen garrantziaren arabera lantzen dela iruditzen zaizu? Nola landu behar litzateke?
- ★ Atxikimendu irudi gisara nola ikusten duzu zure papera? Zein da egitekoa?
- ★ Gatazkei nola egiten zaie aurre? (zigorra, elkarrizketa...) ikastetxeak badu metodo edo proposamenik?

2. ERANSKINA: 1. IRAKASLEA (TRANSKRIBAPENA)

San Andres Herri Eskola (Ormaiztegi), HH5ko tutorea (24 ikasle), 34 urte hezkuntzan lanean.

★ **Zer ulertzen duzu Hezkuntza Emozional (HE) gisa?**

Nik emozioak ulertzen ditut pertsona orok berezkoak ditugun ahalmenak bezala, baina bai izan daitezkeela positiboak edo negatiboak, eta betiere hezi eta kontrolatu ahal eta behar direnak.

★ **Lanean zabiltzan ikastetxean, nola ulertzen da? ze garrantzi duela HE esango zenuke?**

Irakaskuntzan kontu asko daramatzadala kontuan hartuta, eboluzioa garrantzitsua izan dela iruditzen zait. Horrela bizi izan dut nik behintzat. Gaur egun gehiago baloratzen dela esango nuke atal hau, baina baita ere pentsatzen dut egunerokotasunean eta haur hezkuntzan suertez eta ezinbestez emozioen hezkuntza beti izan dela presente era batera edo bestera.

★ **Konpetentzia emozionalak ezagutzen dituzu? Teoria oso gutxi landuta daukat gai honen inguruan. Nola definituko zenituzke? Ze azpi atal dituzte? Definizio horren barruan ongizaterako gaitasuna, pertsona denok berezkoa dugun zerbait dela, emozioen motorra. Baina kontuan izanda emozio hauek positiboak edo negatiboak izan daitezkeela erregulazioa derrigorrezkoa dela bai norberarekiko eta gaitasun sozialean aurrera era egokian egin ahal izateko. Eta azpi atalei buruz gutxi daukat esateko.**

★ **Zein dira lantzen direnak eta nola? Zure ustez ze konpetentzia emozional dira landu beharrekoak?**

Landu behar, zenbait eta gehiago eta era aberatsagoan hobe. Kontzientzia emozionala uste dut izan dela orain arte gutxien landu dena eta orain garrantzia gehiago ematen dioguna.

★ **Formakuntzarik jaso duzu honen inguruan?**

Adimen emozionalaren inguruan 4 orduko ikastaro bat eta baita ere Sentir y Pensar metodoaren inguruan hitzaldi batera joan nintzen.

★Proiektu edo programa pedagogikorik ezagutzen duzu, konpetentzia hauetan sakontzen duenik?

Sentir y pensar eta gero baita ere, eta hau erabiltzen dugu egunerokotasunean, hezkuntzako berrikuntza atalak argitaratutako adimen emozionalaren inguruko txostena.

★ Eguneroko jardueran adimen emozionalaren lanketa burutzen duzula esango zenuke? Ze modutan? Nola hobetu liteke zure ustez?

Nire ustez momentu oro lantzen dugu Adimen Emozionala. Umea geroz eta txikiagoa izan orduan eta denbora gehiago pasatzen dugu emozioen lanketaren inguruan, ezinezkoa egiten zaiolako egunerokotasun horretan haietatik at gelditzea. Momentu honetan 5 urteko haurrak ditud eta esango nuke gai honetan gehien laguntzen didana eguneroko lanaren antolaketa dela, ze modutan?

Adibidez, egunero arduradun bat izatea gelan, tokatzen zaionaren ardura, egun horretan oso puntual etortzen da normalean, eta autoestimuan ere ukitzen ditu bete betean. Honek egiten du gelakideek eta norberaren izenen zerrenda ezagutzeko motibazio handia izatea.

Beste adibide bat, urtebetetzeak kontuan hartzeak eta taldean ospatzeak, bakoitzak marrazki bat egiten dio omendutakoari, autoestimu eta talde zentzua gehitzen du ere, era handi batean. Eta honek egiten du bai zenbakiak hilabeteak, besteen izenak, ikasteko motibazio handia sortu izatea.

Beste adibide bat, txokoetan lan egiteak materiala partekatzeko aukera gehiago ematen digu. Aldi berean gauza bera eduki nahi izaten dute eta hau liskar iturri izaten da, erregulazio emozionala eta gaitasun soziala lantzen ditugula momentu hauetan uste dut.

Baita ere, bakoitzak berak egin behar dituenaren ardurak bultzatzen ditugunean, autonomia lantzen dugu. Ba noiz, bakoitzak bere lanak egin eta karpetan jasotzen ditugunean, denon materiala zaindu eta jasotzen dugunean, bakoitzak bere arropa eta motxilaren ardura izaten dugunean, komunera bakarrik joaten denean.

Noiz gehiago? Arauak lantzen ditugunean emozioen kontrola lantzen dugu. Denontzat ari denean norbait hitz egiten besteak isilik entzun egun behar dugu, gelan korrika eta zarataka ezin da ibili.

Eta abar eta abar.

Beste puntu batean ere, oso garrantzitsua izaten da emozioen lanketa ba pentsatzeko eta haserrealdiak kudeatzeko txokoa erabiltzen dugunean. Geldialdia egin, pentsatu hitz egin eta adostu. Hemen konpetentzia emozional guztiak lantzen direla esango nuke, era batera edo bestera. Gehiago ere aipa ditzaket baina luzatu egingo litzateke.

★ Denboralizazio aldetik nola duzu antolatuta?

Ez, nik uste HHn ez dut uste ordu zehatzik jarri behar denik. Momentu oro dugulako emozioen inguruan jarduteko aukera eta momentu horiek aprobetxatu behar dira nire ustez aurre egiteko.

★ Ikastetxeak HE lantzeko inolako programazio, materia edo jarraibiderik eskaintzen dizu? Zuk baduzu? Behar duzula iruditzen zaizu? Zergatik?

Ikastetxeak ahal duen guztia egiten du, beste arlo guztietan bezala. Baina lehen esan dudan bezala egunerokotasunaren antolaketa on bat izateak nik uste laguntzen didala gehien, arlo honetan beste arlo askotan bezala ere. Era guztietan material ugari eta aberatsa izatea beti izaten da lagungarri.

Orduan irakasle bakoitzak zuena antolatzen duzue ezta? Gutxi gora behera bai, ikastetxea gehiago saiatzen da, ikastaroak antolatzen, hitzaldiak, norbait ekartzen, gai hori lantzeko.

★ Adimen Emozionalak ze garrantzi duela iruditzen zaizu eta zergatik?

Ba erabatekoa, berezkoa delako eta landu beharrekoa noski. Emozionalki ez bagaude ondo, eskain diezaiokegun oro jasotzeko interesa askoz ere murriztuagoa izaten delako.

★ Edukiekin alderatuz (matematikak, hizkuntza...) ze garrantzia duela uste duzu? Duen garrantziaren arabera lantzen dela iruditzen zaizu? Nola landu behar litzateke?

Ba lehen esan bezala, emozionalki ez bagaude ondo beste guztia sobran dago. Lantzen dugu, gehienbat ezinbestez, duen garrantzi maila hori igo behar zaiola uste dut, hezkuntzaren barruan goi goitik hasita, errebalida gutxiago eta baliabide

gehiago. Bestela esan diezadala legea egin duenak, nola errespeta ditzakedan 2 urteko gelan 18 haurren behar fisiko emozionalak, egunak joan eta egunak etorri.

★ Atxikimendu irudi gisara nola ikusten duzu zure papera? Zein da egitekoa?

Lehenengo eredu izanez, eta gero bakoitzari bere garapenean lagunduz, motibatuz, animatuz, kontentzioa landuz, arauak landuz, betearaziz, haserreak kudeatzen lagunduz...

★ Gatazkei nola egiten zaie aurre? (zigorra, elkarrizketa...) ikastetxeak badu metodo edo proposamenik?

Ikastetxean bere horretan orokorrean ez, baina nire usten aurrera egin ahal izateko lehenengo eguneroko bizitzan integratu behar da eta ikasteko aukera bat bezala ulertu. Gelan txoko bat eskaini. Momentua iritsitakoan geldialdia egin pentsatu hitz egin hitz egin hitz egin, aukerak eman, eman eta eman eta azken batean, aukera horien artean, ba ez dakit nik, adibide bezala ipintzen dut beti, paper txuri batean aukera bat izan daiteke. Arau hauste bat dagoenean paper txuri batean ba norberaren izena apuntatu, hiru aldiz apuntatuta badago egun bukaeran nolabaiteko ondorio bat izango du, hau da, gehienetan da pixka-batean eskolan gelditu beharko duela zerbait egiten zuzentzeko, zuzen egin ez duen hori. Eta hurrengo egunean berriro hasi, nik uste hori dela eguna joan eta eguna etorri gai hau lantzea. Egunero aukerak ematea.

3. ERANSKINA: 2. IRAKASLEA (TRANSKRIBAPENA)

San Benito ikastola (Lazkao), HH4ko tutorea (25 ikasle), iazko martxoan hasi zen hezkuntzan lanean.

★ Zer ulertzen duzu Hezkuntza Emozional (HE) gisa?

Hezkuntza emozional gisa, definizio zehatz bat ezingo nizuke eman, gehien bat emozioak eta ume bakoitzaren egoera emozionala nola bideratu eta nola bideratu egunerokotasunean.

★ Lanean zabiltzan ikastetxean, nola ulertzen da? ze garrantzi duela HE esango zenuke?

Nik uste ematen zaiola garrantzia, egunero zeharka ematen zaio garrantzia, eta beste batzuetan espezifikoki baita ere, edo lanketa berezi batekin ematen zaio.

★ Konpetentzia emozionalak ezagutzen dituzu? Nola definituko zenituzke? Ze azpi atal dituzte?

Nik gehien bat emozioen identifikazioa eta kontzientzia, eta kontzientzia horretan ume bakoitzari eragiten diona eta horrek ekartzen dituen ondorioak. Emozioaren arabera, segun nola dagoen ume bakoitza beste aspektuetara nola eragiten dion.

★ Zein dira lantzen direnak eta nola? Zure ustez ze konpetentzia emozional dira landu beharrekoak?

Egunero, geletan sentimenduen txokoa dute, bertan beraien argazkiak dituzte eta nahi dutenetan identifikatzen dute beraien egoera sentimentalaren arabera aldatuz. HH3 hasten dira, triste eta pozik, dituzten bi argazkietan eta gero HH4n triste pozik eta haserre. Hori nahi dutenean alda dezakete eta identifikatu euren kabuz.

Noizean behin ikusten dugun behar bereziren batengatik lanketa bereziak egiten dira, mural bitartez edo jolas ezberdinen bitartez. Muralak esaterako aurpegiak (triste eta pozik) eta beraiek identifikatu behar dituzte argazkiak triste edo pozik dauden.

Gero kontuan hartzen da, esaterako aurten familia askok anai arreba txikiak izan dituztela eta horrek haurrei asko eragiten diela, eta gehienbat hortik...

egunerokotasunean umeak nola dauden, agian beti etorri da pozik eta orain duela gelditu nahi... *eta zergatik ez duzu gelditu nahi?*. Gehien bat da egunerokotasunean bera ulertzea nola dagoen emozionalki, gero ulertzeko bere jarrera eta bere egoera.

★ **Formakuntzarik jaso duzu honen inguruan?**

Ez, unibertsitatean bai, baina bestela ez.

★ **Proiektu edo programa pedagogikorik ezagutzen duzu, konpetentzia hauetan sakontzen duenik?**

Ikastolak badu adimen emozionalari buruzko programaketa bat (*Gipuzkoako Berrikuntza sailarekin bat*), Urtxintxarekin lotuta dago, orain arte Urtxintxakin lan egin dugu, ez da dena lotzen, baina, esaterako "Inurri eta Txirritaren" ipuinarekin zerikusia duten ariketak daude. Beste batzuk ez dute loturarik, ariketak dira, baina erreza da txertatzea metodoan, oso ariketa sinpleak dira umeentzako oso errazak.

★ **Eguneroko jardueran adimen emozionalaren lanketa burutzen duzula esango zenuke? Ze modutan? Nola hobetu liteke zure ustez?**

Gehien bat egunero haurra sartzen den unetik identifikatzen duzu haurra nola dagoen eta horrek eragiten du nola egongo den egunean zehar edo astean zehar... **Sentimenduak identifikatu eta gero ze ondorio du horrek?** Haurrek ez dute hizkuntza gehiegirik; gehien bat haurra ulertzea da eta errespetatzea, zergatik une horretan ez duen eseri nahi: identifikatu, ulertu eta errespetatu. **Eta adibidez, ume horrek ez du eseri nahi eta besteekin lantzen da?: beno triste dago eta ez du eseri nahi.** Bai, gehien bat kontzientzia horren enpatia, konturatzea. Jarrerak ere bertan sartzen dira, ume bat gaizki badago, *zergatik jo duzu?* Agian egoera emozionalean ez dagoelako ondo, eta besteak ere ulertu behar du, jo dutela eta hau ez dagoela ondo, baina jo duena ez dagoela ondo...

★ **Denboralizazio aldetik nola duzu antolatuta?** Ez dugu denboralizazio zehatzik, momentua hartu behar da, jakin behar da momentu hori hartzen, 25 ume ditugu baina, jakin behar da. Eta gero, behar bada, lanketa espezifikoa denen artean.

★ **Ikastetxeak HE lantzeko inolako programazio, materia edo jarraibiderik eskaintzen dizu? Zuk baduzu? Behar duzula iruditzen zaizu? Zergatik?**

Bai, hau (*Gipuzkoako Berrikuntza Sailarena*), Urtxintxarekin lotuta. Orain Urtxintxa pixka bat baztertzen ari gara, gehien bat txokoak ditugu. Urtxintxako materiala ez da zehatz- mehatz jarraitzen.

★ **Adimen Emozionalak ze garrantzi duela iruditzen zaizu eta zergatik?**

Nik uste, AE beste adimenak batzen dituen delat. Adimen anitzei buruzko formakuntza bat jaso dut eta hor ikusten da, AE-lak nola eragiten duen beste adimenetan. **Etorkizunean adimen emozionalak baduela eragina iruditzen zaizu?** Bai, bai, erabat, beste adimenek baina gehiago eta dena. Azken finean adimen emozionalak besteei eragiten die.

★ **Edukiekin alderatuz (matematikak, hizkuntza...) ze garrantzia duela uste duzu?** Emozionalki ez badago ondo ba ezin da landu. **Duen garrantziaren arabera lantzen dela iruditzen zaizu? Nola landu behar litzateke?** Ez, geroz eta gehiago bai, baina oraindik ez dugu duen garrantziaren kontzientzia. Gehien bat ikusten da... haur hezkuntzan gelditzen dela hori. HHn lantzen da eta HH amaitzean uzten da AE, emozio guztiak, bakoitzak sentitzen duena..., eta LHn sartzen gea hizkuntza, mate... beste guztia kontuan hartu gabe.

★ **Atxikimendu irudi gisara nola ikusten duzu zure papera? Zein da egitekoa?**

Nik uste, haurrak eroso sentitzea, haurra eroso sentitzen bada atxikimendu hori sendotzen joaten da, segurtasuna eskaintzen badiezu, haurrak ikusten badu zure ondoan bere behar guztiak asetzen direla edo hori asetzen lagunduko diozula, nik uste hori dela.

★ **Gatazkei nola egiten zaie aurre? (zigorra, elkarrizketa...) ikastetxeak badu metodo edo proposamenik?**

Zigorra, zigor bezala ez dugu hartzen. Zerbait pasatzen bada, gatazka baten aurrean, hitz egin, hizkuntza hori landu eta elkarrizketa bitartez. Kontuan hartu nola hizkuntza ez duten denek maila berean, ba azken finean hor zaude bitartekari bezala zer pasa den ulertzeko bi aldeetatik.

4. ERANSKINA: 3. IRAKASLEA (TRANSKRIBAPENA)

La Salle ikastetxea (Beasain), HH5eko tutorea (25 ikasle), 4 urte daramatza irakaskuntzan.

★ Zer ulertzen duzu Hezkuntza Emozional (HE) gisa?

Haurra ongizate batean hezteko beharrezkoa den hezkuntza. Izan ere, haurrek beraien emozioen oreka bat bilatzen ikasi behar dute. Ikaste prozesu honetan praktika esanguratsu bat aurrera eramanez behar da. Haurra jaiotzen den unetik emozio, sentimendu, zalantza... ezberdinak bizi izango ditu, eta hauen lanketa bat aurrera eramanez behar da emozio horiek ongi barneratu ditzaten. Irakasleok garrantzi handia dugu hemen, izan ere, haurra eskolan dagoen unean hainbat egoera ezberdin bizitzen ditu eta horietako bakoitzak emozio ezberdin bat eragiten dio, beraz, horren inguruko lanketa bat oso garrantzitsua da. Haurrak oreka bilatu behar du bere sentimenduetan egiten dituen ekintzak bai berarentzat eta bai bere ingurukoentzat onurak ekarri ahal izateko. Izan ere, HE norberaren eta ingurukoena da, bai pertsonala eta bai interpersonala, bien proportzio eta erregulazio egoki bat lortu behar da. Beraz, hezkuntza emozionala ez da zerbait puntuala edota une berezietan egiten den zerbait, baizik eta haurra hezteko modu bat, ongizate batean bizitzea ahalbideratuko diona alegia. Honela, haurrak hezkuntza emozional on bat jasotzen badu, hezkuntza kognitibo bat ondo jasotzeko aukera izango du, baina haurrak emozio horien inguruko lanketarik ez badu jaso, eta hauei aurre egiteko estrategiarik ikasi eta barneratu ez baditu, ia ezinezkoa egingo zaio maila kognitibo on bat lortzea.

★ Lanean zabiltzan ikastetxean, nola ulertzen da? ze garrantzi duela HE esango zenuke?

Eskola honetan hezkuntza emozionalari garrantzi handia ematen zaio. "HARA" izeneko proiektu bat dugu. Bertan, adin bakoitzera egokitutako gaiak daude (2-15 urte) Honela, adin bakoitzari dagokion gaiak lantzen dira, astean gai zehatz bat, nik adibidez honakoak jorratu ditut orain arte 5 urteko gelan: "lagunen laguna naiz", "norbera maitatzearen garrantzia", "ondokoa zaindu behar da", "errespetuz bizi behar da"... honela, egunero gaia hartuz, ipuin, marrazki, bideo ezberdinak daude zehaztuta, haurrei pentsarazten dizkieten baliabideak. Honez gain, haurrek astearen bukaeran landu dugun gaiaren inguruan zer ikasi duten azaldu behar dute talde osoan eta nola sentitzen den bera edo ondokoak gai bakoitzaren egoeraren aurrean.

Beraz, ematen zaion garrantzia handia da, programatutako gaiez gain, egunerokotasunean hurrek izaten dituzten emozio ezberdinei garrantzi handia eman eta horien oreka eta alderdi positibo guztiak bilatzen ahalegintzen garelako.

★ Konpetentzia emozionalak ezagutzen dituzu? Nola definituko zenituzke? Ze azpi atal dituzte?

Aurretik aipatu bezala, konpetentziak hauek direla uste dut: Norberaren kontzientzia ahalik eta egokien izatea, emozioak ongi barneratzen jakitea eta hauen arteko oreka bat aurkitzeko estrategiak ikastea, autonomia, enpatia, Gizareratze konpetentzia, bizitzan zehar ekintzei aurre egiteko eta ongizate batean bizi izateko konpetentzi, ezaugarri, baliabide...ezberdinak.

Kontzientzia emozionala: haurrak bere kontzientzia lasai eta garbi izan behar du, hau horrela izan dadin, sentimendu eta emozioen lanketa bat egin behar da, hauek ongi garatuta egon behar dutelako. Izan ere, kontzientziaren arabera haurra modu batera edo bestera sentituko da, eta honek eragingo dio ekintzak modu batera edo bestera egitea.

Emozioen autoerregulazioa: haurrak baliabide ezberdinak bilatu behar ditu emozioen artean oreka aurkitzeko. Hau da, haurrak jasango dituen egoera ezberdinek modu batera edo bestera eragingo diote, honela, bien arteko oreka bat bilatu behar du, Neurria bilatu behar du.

Autonomia: Haurrak bere kabuz hainbat emozioen barneraketa egoki bat eduki behar du, izan ere, egia da guraso, irakasle eta beste zenbaitek horien lanketa bat egin behar dela, baina haurrak bere autonomia hori ateratzea ezinbestekoa da: autoestima edukitzea, jarrera baikorra izatea bizitzarekiko eta gertatuko zaizkion arazo ezberdinei aurre egiteko, arduratsua izatea bai bere buruarekiko eta bere inguruan daudenekiko, laguntza aurkitzeko autonomia hori izatea eta horretarako baliabide batzuk aurrera eramatea...

Empatia: bestearen lekuan jartzeko gaitasuna izatea. Haurra ahalegindu egin behar da jakiten ondoko pertsona nola sentitzen den, zein emozio jasaten ari den... nik egunerokotasun asko ibiltzen dudana da hau. Izan ere, gatazken aurrean eta hauek konpondu ahal izateko ezinbesteko konpetentzia bat dela uste dut: batak besteari zerbait gaizki egin dionean galderak eginez adibidez: zergatik jo duzu? Nola sentitu zarela? Lagunari jo diozunean nola sentitu dela uste duzu? Triste ala pozik dagoela uste duzu?...honela, ondokoaren ondoan jarri behar duela erakutsi

nahi izaten diet, norberari gustatzen ez zaiona besteei ez zaiela egin behar barneratuz.

Gizarteratze kompetentzia: egunerokotasunean jasango dituen egoera ezberdinei aurre egiteko baliabide eta ezaugarri ezberdinak bereganatzea.

★ Zein dira lantzen direnak eta nola? Zure ustez ze kompetentzia emozional dira landu beharrekoak?

Aipatu ditudan denak lantzen ditudalakoan nago, hala ahalegintzen naiz behintzat. Izan ere, hezkuntza emozional egoki bat aurrera eramateko kompetentzia guztiak bat egin behar dute. Kompetentziak elkar loturik daudela esan nahi dut, izan ere, kompetentzia bat ongi garatuta eduki ezkerok, beste bat barneratzeko erraztasun handiagoak izango ditu haurrak, baina kompetentziak indibidualki edo independente ikasi ezkerok eta ez badira denak osotasun edo talde handi baten barne irakasten zaila da haurrak hezkuntza emozional integrala jasotzea.

★ Formakuntzarik jaso duzu honen inguruan?

Oraindik ez dut formazio berezirik jaso, bai Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntza graduatan ikasitakoarekin nabil. Hala eta guztiz ere, Kristau eskoletatik hainbat mezu bidaltzen dizkigute kurtso hauen inguruan, bai "online" edo baita presentzialak ere. Argi dut egingo ditudala, izan ere, mundu hau ezinbestekoa bezain konplexua da irakasle moduan, honela, irakasleok ere etengabe formatzen joan behar dugu. Bestalde, aurretik aipatu dudan "HARA" erakusteko hilabeteko formazio bat eskaintzen digute. Zuzendaritza taldeak esaten dute zein joan bertara, San Asensio herrian izaten da eta hilabete guzti bat egoten dira bertan.

★ Proiektu edo programa pedagogikorik ezagutzen duzu, kompetentzia hauetan sakontzen duenik?

"Hara". La Salle ikastetxeetan bakarrik dago, gurea den zerbait da, sektore mailan aurrera eramaten duguna. Hala eta guztiz ere, Hara programa irekia dago, hau da, urtez urte begiratu eta dinamika ezberdinak sartzen dira. Etengabe berritzen doa, izan ere, egunerokotasunean eta gizartean bizitzen ari garenekin bat joan behar duelako egiten ditugun jarduera ezberdinek.

★ Eguneroko jardueran adimen emozionalaren lanketa burutzen duzula esango zenuke? Ze modutan? Nola hobetu liteke zure ustez?

Bai. Aurretik esan bezala, adimen emozionala aurrera eramateko zehaztuta eta programatuta ditugun hainbat jarduera eramaten ditut aurrera. Adibidez, aste

honetan, "**Semaforoaren**" dinamika jarraitu dugu. Haur bakoitzari semaforo bat ematen zaio Astelehenean eta bere apalean uzten du. Honela, egunaren amaieran haurrak gomets bat jarri behar du bere semaforoan: Gomets berdea jarriko du ongi sentitzen bada, erdipurdi sentitzen bada horia jarriko du, eta gaizki sentitu bada gorria. Honela, irakasle bezala hartzen dudana papera hau da: etxera joan baina hamar minutu lehenago haur bakoitzari bere semaforoa ekartzeko esaten diot eta berak jarritakoa talde handian partekatzen dugu: zein gomets jarri duzu? Zergatik? Gorria jarri badu...zergatik? Nola sentitzen zara? Zer egin dezakegu hau konpontzeko?...dinamika benetan interesgarria da eta haur guztiak oso gustura sentitzen dira.

★ **Denboralizazio aldetik nola duzu antolatuta?**

Programazioan nola dugun azalduko dut. Bigarren galderan erantzun bezala, astean gai nagusi bat izaten dugu, honela, egunero azkeneko 20 minutuak berari eskainita izaten dira. Honez gain, astean 2 dinamika ezberdin jorratzen ditugu eta 30 minutu ingurukoak izaten dira. Aste honetan adibidez, izugarri gustatu zaien dinamika "**Bidaia Magikoa**" izan da. haur guztiak gelan zehar etzaten dira eta gela ilun uzten dut kortinak itxiz eta argi guztiak itzaliz. Ondoren, erlaxatzeko musika jartzen diet eta denbora pixka bat pasatu ondoren, bidaia magiko batean murgildu daitezten ahalegintzen naiz hainbat ideia emanaz: Lehenbizi, gehien gustatzen zaizuen leku bat pentsatu behar duzue... bertan gehien maite dituzun pertsonekin zaude, jarraian, zure ametsetako jolasean ari zarete jolasean... honelako ideiak botatzen ditut, eta saioa bukatzean, hurrek beraien bidaia magikoa kontatu behar diete bere ikaskideei.

★ **Ikastetxeak HE lantzeko inolako programazio, materia edo jarraibiderik eskaintzen dizu? Zuk baduzu? Behar duzula iruditzen zaizu? Zergatik?**

Aurrez erantzun da.

★ **Adimen Emozionalak ze garrantzi duela iruditzen zaizu eta zergatik?**

Aurrez erantzun da.

★ **Edukiekin alderatuz (matematikak, hizkuntza...) ze garrantzia duela uste duzu? Duen garrantziaren arabera lantzen dela iruditzen zaizu? Nola landu behar litzateke?**

Gu eskola moduan, Howard Gardnerren adimen anitzetan oinarritzen gara, "inteligencias multiples". Honela, horien artean bai adimen emozional pertsonala

eta intrapertsonala dago. Hauek biak garatzea eta lantzea beharrezkoa da ondorengo inteligentziak ongi barneratzeko. Izan ere, haurra ez badago motibatuta, bere buruarekiko seguru, pozik eskolan, egiten duenarekin gustura... haurrak maila kognitibo egoki bat lortzea asko kostuko da orokorrean. Hainbat estatistikek ziurtatuta duten moduan, adimen emozionalak haurraren %75a hartzen du, eta aldiz adimen kognitiboak %25a. Elkarrizketan zehar esaten ari naizen moduan, inteligentziak elkar lotuta joan behar dute, denak osotasunean erakutsi eta transmititu behar zaizkie haurrei hezkuntza integral bat jaso dezaten. Beraz, argi dago maila kognitiboa eta bertan ematen diren edukiak (matematikak, irakurketa-idazketa...) oso garrantzitsuak direla, baina hau modu egokienean aurrera eramateko adimen emozionalaren lanketa egin behar da.

Gure eskolan garrantzi handia ematen zaio, baina irakasle bakoitzak modu ezberdin batean eramango du aurrera. Nik adibidez, oso presente izaten ahalegintzen naizen gaia da, programatutako ekintzez aparte, egunerokotasunean sortzen diren egoera ezberdinak oso egokiak direlako hauen lanketak egiteko, haurrek bizi izan dutena izaten delako eta zer sentitzen den, zer nahi duten... hobe barneratzen dutelako. Azken finean, haurren errealitatera iristea da helburua, beraiek bizitzen dituzten egoera ezberdinei aurre egiteko estrategiak erakustea, beraz, kasu horiek hartu eta horien lanketa egitea oso esanguratsu egiten zaie.

★ Atxikimendu irudi gisara nola ikusten duzu zure papera? Zein da egitekoa?

Gure papera oso garrantzitsua dela uste dut. Haur bakoitzak bere hezkuntza emozionala egunerokotasunean murgiltzen den eremuetan barneratuko du, eta eskolan ordu asko pasatzen dituztenez, guk horien aurrean ahalik eta hobekien egin behar ditugu gauzak. Haur bakoitza ongi ezagutzea oso garrantzitsua da, izan ere, haur bakoitza ezberdina da eta emozioak, sentimenduak, pentsamenduak...modu ezberdin batean biziko ditu. Beraz, guk, haur bakoitza ere modu ezberdin batean motibatu, segurtasuna eman, konfidantza eman, beldurrak kendu... egingo dugu.

★ Gatazkei nola egiten zaie aurre? (zigorra, elkarrizketa...) ikastetxeak badu metodo edo proposamenik?

Ez du metodo edo proposamenik. Ni irakasle moduan ez naiz zigorrak jartzekoa, gatazken aurrean hau egiten dut: haur bakoitzari utzi hitz egiten ea zer gertatu den, bakoitza nola sentitzen den adierazi dezaten, eta azkenik, zer egin behar duten sortu duten gatazka berriz gerta ez dadin...